

Hizkuntza Eskubideen egoera 2016



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

Hizkuntz Eskubideen Behatokia

Hizkuntz Eskubideen Behatokia euskal hiztun oren hizkuntza-eskubideez arduratzen den erakunde independente eta nazionala da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, babestera zuzentzen du bere jarduera.

Euskal Herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioari zuzendu eta administratziotik zerbitzuak jasotzeko (osasuna, hezkuntza, justizia, informazioa edo beste edozein zerbitzu), bai eta orokorrean, jendarteak eskaintzen dituen aukerak euskaraz baliatzeko euskal hiztunek dituzten eskubideak babestea da Behatokiaren xedea. Ondorengo lerro hauetan islatuko dugun azterketa 2016an zehar herritarrek Behatokira helarazitako gertaeretan oinarritzen da. **Euskararen Telefonoaren** edo **Akuilari** app-aren bidez, administrazio publikoen eremuan zein sektore sozioekonomikoan, euskaraz jarduteko eskubidea errespetatu ez zaienean, Behatokira jo dute babes bila edota salaketa egitera bizi izan duten hizkuntza-eskubideen urraketaren aurrean eragiteko asmoz. Horrela bada, azterlan honen iturria herritarren beraien bizipenak dira, euskal hiztunek euren egunerokoan euskaraz jarduten saiatu direnean bizi izan dituzten egoerak.

Horrela bada, Behatokian jaso ditugun gertaera horiek guztiak errealitatearen zati bat, lagin bat besterik ez dira, baina euskal hiztunen benetako egoerara eta egunerokoan aurkitzen dituzten zailtasunetara gerturatzen gaituzte.

Oharra: liburu honetan agertzen diren datuak, informazioa... baliatu nahi izanez gero, iturria aipatzea eskertuko da.

Izenburua: Hizkuntza Eskubideen Egoera 2016

Mota: urteko txostena

Egilea: Hizkuntz Eskubideen Behatokia

Argitaratze data: 2017ko ekainaren 6a

Ale kopurua: argitalpen digitala (www.behatokia.eus atarian eskuragarri)

Hitzaurrea	4
Egoera iraultzeko bidea marraztu dugu eragileok, balia dezatela botere publikoek	
Sarrera	5
Hizkuntza-eskubideez jardutean giza eskubideez ari gara 1996-2016: Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsaletik Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokolora	
00 Behatokiaren jarduna, herri gogoa oinarri	8
01 Osasungintza	16
02 Herritzaingoa eta Segurtasuna	24
03 Justizia	28
04 Hezkuntza	32
05 Administrazio jarduera orokorrak	37
06 Kultura, aisia eta kirola	46
07 Lan mundua	52
08 Kontsumo zerbitzuak eta interes orrokorreko zerbitzuak	56
09 Ondorioak	64

Egoera iraultzeko bidea marraztu dugu eragileok, balia dezatela botere publikoek

Hizkuntza eskubideak urratzea bizi-kalitatearen, ongizatearen eta duintasunaren aurka egitea dela ondorioztatzen dute Behatokiaren urteko txostenaren ondorioek. Eta, egia esan, uste dut parametro egokietara eramaten duela Behatokiak eskubideen urraketan afera. Izan ere, ez gara ari herritarren kapritxoez edota unean uneko eskaerez. Herritarren oinarriko eskubideez ari gara, eta beraz, horiek bermatzeko politikak bizi-kalitatearen, ongizatearen eta duintasunaren aldeko politikak dira; finean, euskaraz bizitzea da guretzat duintasunez bizitzea.

Horrela, aurten Behatokiko ondorioek argi-fokoa langileen hizkuntza-gaitasunean jarri dute, eta bada garaia gai hori behar bezala jorrazteko. Ongi dio, bai, txostenak, herri erakundeen zeregin nagusia jendarte osoarentzako kalitatezko zerbitzuak ematea dela, eta horretarako, nahitaez langileek berezko hizkuntzaren ezagutza izan behar dute. Horrela ez bada, argi dago langile horiek ezin izango dietela zerbitzu egokia eskaini milaka herritarri. Hartara, langileen hizkuntza-gaitasunari dagokionez, jauzi kualitatiboa emateko garaia dela uste dugu.

Egin beharreko bide horrek zein izan behar duen marraztuta dago jada. Europako berezko hizkuntzen normalizazioaren alde lan egiten dugun eragileok osatu genuen Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa da horretarako oinarria, oinarri sendoa. 2016ko abenduaren 17an Kursaal aurkeztutako proposamena, alegia.

Protokoloa, hasiera-hasieratik babes eta inplikazio handiarekin osatu den proiektua izan da. Elkarren arteko errespetuan oinarritutako elkarlana izan du ezaugarri nagusi sortu zenetik. Egindako ibilbidean, atxikimenduak biltzen joan da, bai Euskal Herrian baita Europa osoan ere. Azken urte luzeotan hizkuntza-politikari lotuta sortutako proiektu eta dokumentuen artean babesik handiena lortu duena izan dela esan dezaket, harro.

Zer eta nola egin daitekeen definituta izanda, oinarri sendoa edukita, hortaz, zer da falta zaiguna? Bada, norberari egin beharrekoa betetzea. Alegia, Behatokiaren urteko txosten hau osatzeko alea jarri duten herritarren eta gainerako euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatuak izatea, euskaraz bizitzea errealitate bihurtzea. Hizkuntza-eskubideak, gainerako giza-eskubideak bezalaxe, botere publikoek bermatu behar dituzten eskubideak dira.

Zehaztu dugu zer egin behar den botere publikoek gure eskubideak bermatzeko borondatea baldin badute. Hor Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Bidea zein den badakigu; balia dezatela, beraz, tresna eragingarri hau al bait arinen.

Paul Bilbao Sarria
Hizkuntz Eskubideen Behatokiko lehendakaria

Hizkuntza- eskubideez jardutean giza eskubideez ari gara



Eguneroko bizitzaren alderdi garrantzitsua da komunikazioa. Eta komunikaziorako tresna nagusia da hizkuntza. Baina hizkuntza ezin zaio lotu soilik dimentsio komunikatiboari. Inguruko errealitatea, harremanak, mundua, modu propioan antzeman eta deskribatzeko tresna da hizkuntza.

Hizkuntza-aniztasunak mundua ikusmolde ezberdinetatik ikusteko eta ulertzeko aukera eskaintzen digu. Aberastasuna eta aukera dira pertsona ororentzat.

Hizkuntza guztiak dira nortasun kolektibo baten adierazpide, batasun banaezina osatzen dute kulturak eta hizkuntzak eta guztiak merezi dute aitortza eta errekonozimendu berbera.

Baina, zoritxarrez, ez da hala. Hizkuntza-eskubideak komunitate orori badagozkio ere, gaur egun hizkuntza nagusien hiztunek baino ez dituzte bermaturik hizkuntza-eskubideak. Hizkuntza-komunitate guztiak eta berau osatzen duten pertsonak bere lurraldeko hizkuntza erabili eta garatzeko eskubidea badute ere, mundu zabalean ohikoak dira haien hizkuntza-eskubideez gabeturik dauden giza-taldeak. Hauen artean dago euskal hiztunen komunitatea.

Horrela, testuinguru honetan garrantzia handia hartzen dute hizkuntza-eskubideak. Hizkuntza-eskubideak oinarrizko giza eskubideen, pertsonalen zein kolektiboen, parte dira eta giza duintasuna eta hizkuntza guztien berdintasuna dute oinarri.

Gizakiaren oinarrizko eskubideen baitan kokatu behar ditugu, bada, hizkuntza-eskubideak. Izan ere, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren bigarren artikulua dioenez,

“Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor diskriminatuko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik”.

Esan dezakegu hortaz, hizkuntza dela eta, diskriminaziorik ez jasateko eskubidea dugula, giza eskubideen dimentsio linguistikoa direla hizkuntza-eskubideak. Norbere hizkuntzaz baliatu, hura erabili eta garatzeko eskubidea; gainontzeko oinarrizko eskubideekin batera bat gehiago direla hizkuntza-eskubideak.


Hala, hizkuntza ezberdinen ezaugarriek ez dute justifikatzen inolako bereizkeriarik eta, gurea bezalako hizkuntza-komunitateetako hiztunei, hizkuntza-eskubideak urratzen zaizkienean, giza-eskubideen funtsezko bi balioak kaltetzen dira: berezko duintasuna eta pertsonen arteko berdintasuna.

Horrela, hizkuntza dela eta, bazterkeria eta pertsonen oinarrizko giza eskubideak kaltetzen dituen gizartea ez da justua. Gizarte ongizatean eta elkarbizitza orekatuan, errespetuan, berdintasunean zein begirunean oinarritutako jendartea eraikitzeko, nahitaezkoa da hizkuntza arrazoiengatiko bazterkeriarekin bukatzea.

“Giza eskubideen dimentsio linguistikoa dira hizkuntza eskubideak. Norbere hizkuntzaz baliatu, hura erabili eta garatzeko eskubidea; gainontzeko oinarrizko eskubideekin batera bat gehiago dira hizkuntza-eskubideak.”

1996–2016: Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalik Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokolora

Orain 20 urte onartu zen Bartzelonan Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta iazko abenduan Donostian Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Hizkuntza-eskubideen aitortzatik horien bermerako neurriak zehaztera pasatu gara. Neurri horiek exekutatzeko garaia da orain, hiztun ooren hizkuntza-eskubideak bermatuta egon daitezzen.



HIZKUNTZ ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA (1996)

Gaur egun, euskal hiztunen komunitatea estatus juridiko ezberdinen mende dago eta euskaldunari bizi den tokiaren arabera aitortzen zaizkio hizkuntza-eskubideak. Ahulezia hori gainditu eta hizkuntza-eskubideen gaineko diagnosi egokia egiteko ezinbestekoa da beste erreferentzia marko bat erabiltzea. Horretarako dokumentu garrantzitsua eta guztiz erreferentziala da Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (HEDU).

1996an Bartzelonan PEN Club International eta CIEMEN (Centre Internacional Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions) erakundeak sustatu eta UNESCO erakundeek babestutako Hizkuntza Eskubideei buruzko Mundu Mailako Biltzarrean onartu zen Deklarazioa. 66 Gobernuz Kanpoko Erakunde, PEN erakundeko 41 zentro eta hizkuntza-eskubideen inguruko adituak bildu ziren.

HEDU prestatu eta onartu zutenek kontuan hartu zuten hizkuntza-eskubide zuzenen definizioa ezin dela hizkuntzen estatus politiko edo administratiboaren menpe egon, ez eta hiztun kopurua bezalako irizpideen menpe ere. Horregatik HEDUK honako hau adierazten du:

Hizkuntza guztiak dira eskubide berberen jabe eta ez da bereizkeriarik egin behar hizkuntza ofizialak/ez ofizialak, nazionalak/lurraldekoak/ eskualdekoak, gehiengo hizkuntzak/gutxiengo hizkuntzak edo hizkuntza modernoak /antzinakoak ezaugarriengatik.

Mundu osoko hizkuntzei estatus berbera aitortzea eta hizkuntza-eskubideak hizkuntza-komunitateen baitan kokatzen izan zen Deklarazioa sustatu zuten eragileen helburu nagusia. Beste deklarazio, itun eta hitzarmenen aldean, berdintasun printzipioa da HEDUren ekarpen aipagarrienetakoa: munduko hizkuntza guztien berdintasunaren aldarrikapena.

Deklarazio honen funtsean dagoen printzipioa da hizkuntza komunitate guztiak eskubide berdinen jabe direla, kontuan izan gabe beraien izaera juridiko edo politikoa zein den; alegia, hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo gutxiengoen hizkuntzarena (...)

Horrela nazioarteko adierazpen garrantzitsu hau abiapuntu eta oinarri hartuta garatzen du Hizkuntz Eskubideen Behatokiak bere jarduna.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOA (2016)

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipio horiei eta kontzeptuei jarraiki, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu zen 2016ko abenduaren 17an Donostian.


Donostia 2016k eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak sustatutako ekimena da. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta modu eraginkorrean aplikatu daitezkeen 185 neurri zehatz proposatzen ditu.

Bartzelonako Deklarazioak hizkuntza-eskubideen defentsan gizarte zibilak egindako ekarpenaren ondotik urrats berria eman da hogei urte beranduago Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloarekin.

Hizkuntza berdintasunaren alde eta desabantaila egoeran dauden hizkuntzen garapenena bermatzeko dokumentua da Protokoloa. Gizarte eragileen proposamenekin eta Batzorde Zientifiko baten aholkuekin osatutakoa.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa oinarritzko lau balio edo printzipiok ardazten dute:

- **Elkarbizitza eta bakea:** gizarte ongizatean, elkarbizitzan eta bakean sakontzeko ekarpena.
- **Aniztasuna:** hizkuntza-aniztasuna babestu gizateria osoaren aberastasun kulturalaren parte delako.
- **Berdintasuna:** munduko hizkuntza guztiei balio berbera aitortzea.
- **Eskubideak:** pertsona eta talde ororen eskubideak babestea.



00 Behatokiaren jarduna,
herri gogoa oinarri

Behatokiaren jarduna, herri gogoia oinarri

Aurreko atalean esan dugun moduan, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean pertsona orori hizkuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea aitortzen zaion arren, eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipioetan, hala jendaurrean nola maila pribatuan, hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortzen baldin bazaio ere, hizkuntza dela eta bereizkeria jasaten dute euskal hiztunek.

Eta hori egiaztatzeko neurgailurik egokiena herritarren bizipenak dira. Euskaraz bizi nahi duten herritarren testigantzak. Hizkuntza-eskubideez edota eskubideen egoeraz hitz egiteko orduan herritarrak dira horretarako bozeramaile egokienak.

Hain zuzen ere, 2016ko bizipenek erakusten dute euskaraz jarduteko ezintasuna mota guztietako zerbitzu eta jardueretan islatzen dela: osasun zerbitzuetan, segurtasun arloan, justiziaren eremuan, administrazio guztien jardura orokorretan, hezkuntzan, aisialdian, komunikabideetan eta baita sektore sozioekonomikoko kontsumo harremanetan ere.

Baina euskaldun gisa duintasunez bizitzeko eskubideez jabetuta eta errespetuz tratatua izateko eskubidea bere eginda, euskara erabiltzea galarazten zaienean edo zailtasunak aurkitzen dituztenean, beldurrak eta lotsak baztertu eta urraketari konponbidea bilatzen saiatzen dira bizitzeko hizkuntza gisa euskara hautatu duten pertsonak.

Herritarrek euskaraz bizitzeko nahiak bultzatuta egiten duten ahaleginak aldaketak eragiten ditu entitateen eta erakundeen hizkuntza-portaeretan; neurriak hartzen bultzatzen dituzte askotan axolagabe jotzen duten erakundeak eta entitateak.

Izan ere, maiz egiten dute huts administrazio publikoek edota haren menpeko erakundeek herritarren eta erabiltzaileen eskura jartzen dituzten inprimaki, paper edo dokumentuen artean. Esaterako, Espainiako Industria, Energia eta Turismo Ministerioa 4G mugikorra 800Mhz bandan zabalitzen hasi zen 2016 urteko otsaila partean. Aldaketa iragartzen zuen diptikoa gaztelania hutsean igorri zutela eta kexa jarri zuen Behatokian herritar batek. **1**

Herritarrak aitortuak dituen eskubideak ez zirela kontuan hartu eta eskubide horiek bermatzeko neurriak hartzeko eskatuz, Ministeriorekin harremanetan jarri zen Behatokia. Hona herritarrak egindako erreklamazioaren ondorioak: **2**

Euskara ikastaroa egin ondoren diru-laguntza eskaera egitera joan zen beste herritar bat Barakaldoko Udalera. Eskaera egiteko dokumentuen erregistroa egiaztatzeko agiria gaztelania hutsean luzatu zioten. Minduta zegoen. Udalak jakinarazi zuenez, herritarrak arrazoi osoa duela aitortu ondoren, "fintzea besterik ez dugu". Hona finketaren emaitzak **3**

1 Comienzo del despliegue de la 4G móvil en la banda de 800MHz: Convencencia TDT y 4G

2 Hasi dira 4G mugikorra 800 Megahertz (Mhz) bandan zabalitzen LTD eta 4G ekarvekin

3 Documentos enregistrosen egiaztapina / Justificante de registro de documentos

Emagistrazioa / Buruzkote Onak / Datos del Asiento Registrado			
Emagistrazio data / Fecha de Registro			
Emagistrazio zenbakia / Número de Asiento Registrado			
Emagistrazio data / Fecha del Asiento Registrado			
Guztutza data / Fecha de Creación			
Emagistrazio baliagarria / Vigente de Registro			
Ofizina de Registro			
Inprimakiaren Buruzkote Onak / Datos del Título			
Ezartzea / Expediente			
Gaitza / Asunto			
Laguntza / Leituraketa			
Edukiak / Contenido			
Hartzea / Recepción			
Bukatu informazioa / Información Adicional			
Informazioa / Datos Personales Interesantes			
Bereizketa / Clasificación (Ezartzea / Expediente) / Documentación Adjunta (Ficheros Asociados)			
Artibidearen izena / Nombre del Archivo	Funtsua / Ruta	EXE / Ejecutable	Katua / Categoría
1.pdf	48827	EXE	Documentos

Usurbilgo Oiarde Kiroldegian zerbitzu osoa euskaraz jaso arren, txartelak ia osorik erdaraz daudelako Udalarekin harremanetan jartzeko eta aldaketa eskatzeko galdegin zion Behatokiari erabiltzaile batek. 4

Berehala eman zituen Usurbilgo Udalak urratsak aipatu tiketa euskaraz atera zedin. Eta Usurbilen ezezik, gai hau Andoainen, Urnietan eta Lasarte-Orian ere konponbidean jartzeko neurriak iragarri zituen. 5



Bilboko Udaleko Zirkulazio, Garraio eta Ingurumen Saileko erantzun automatikoa jaso zuen herritarrak. Euskara izenburuan eta sinaduran baino ez zelako ageri eta mezuaren edukia gaztelaniaz baino ez zegoelako keza jarri ondoren, honako emaitza izan zuen herritarrak egindako ahaleginak. 6

Garraio publiko guztietan euskarri bakarrarekin bidaiatzeko Mugi txartelaren tarifa berrien jakinarazpena bidali zioten herritarrari. Loturan klikatuz webgunean sartu eta tarifa berriak gaztelaniazko orrian bakarrik ageri zirela ohartuta desadostasuna pare bat aldiz jakinarazi ondoren etorri zen aldaketa. 7, 8

Iruñeko herritarra, berriz, kexu zen Odol Bankuaren sarreran txanda hartzeko jarritako ordenagailuak ez zuelako euskaraz egiteko aukerarik ematen. Berehala jarri ginen Osasunbidearekin harremanetan eta "Nafarroako Gobernuko Itzulpen Unitatera jo eta eskatutako aldaketak egin ditugu" jakinarazi zuten. Poza adierazi zuen herritarrak jakindakoan. 9

Euskarari lekua egin arren, euskaraz zabar eta trakets idatzita dagoelako kexatu dira herritarrak beste hainbatetan. Batzuetan gogoz saiatuta ere nekez ulertzeko testuak izaten dira. Irakurri ondorengo eta ea "Argibideak" argi geratzen zaizkizuen. 10

Estatuko Justizia Administrazioaren Idazkaritza nagusira igorritako kexaren ondotik etorri zen zuzenketa. 11



Ziurtagiri hau salbustuti dago tasako. Eskera presentatzen izan ekitik, ziurtagiri gogoa da eta ahal dela bidalko du balabide elektronikoagatik eskatutako telefono mugokorra, interesatuek hura postagatik jasotzeko bere nahia agerian jar dezak erepresu ezean.

Dokumentu idazmakina edo letra larri bete behar da, zuzentzerik edota ezabaterik gabe.

Inprimaketa batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Informazioaren titularraren espainiera bada:
 - Idazkaria edo DNI-ko, indarrean, konputatutako fotokopia. Aurkepenareko, postaz dokumentatutako konputatutako fotokopia igortze nahitaezkoa da.
- Informazioaren titularraren atzerriarra bada:
 - Idazkaria edo, indarreko identifikazio-erdiago edo baliokidea dokumentu, Bizileku-Txartelak (NIE-etako) konputatutako fotokopia. Aurkepenareko, postaz dokumentatutako konputatutako fotokopia igortze nahitaezkoa da. Datuak: Sexuak: Emisio: Zentzualak: Espainiako justizialarriak izan diren bitartean gainera informazioa duela jakarri, atzerriko herritarrek aurrekari gogokoak ziurtagiri bat bere nazionalitateko herritar. Datuak: Sexuak: Emisio: Zentzualak: igorritakoari erantsi behar izango dituzte, eskatu behar duten.
- Eskera interesatuek aurkeztu behar diren irudikatzen duen, eta pertsona adingabeen kasuan, honen, bere identitate dagoen aurkako dokumentuaren bitartez akreditatzea gain, eman behar izango duen beste pertsona batengandik ez denetan:
 - Ordakutako pertsonaren identifikazio-argiaren jatorriko dokumentu edo fotokopia konputatua.
 - Ordakutako zuzenbidean balioketako beste edozein baliabideren egiaztatzen duen, bai indarrean jatorriko dokumentu edo fotokopia konputatua, haren fede-emakia bada (notarioak baimendutako agiri publiko, notarioak legetatutako sinadurak dituen agiri pribatuak, interesatuek langile publikoen aurrean emandako dokumentu pribatu, ingurumen bidez ageratu hura jaso behar duen) edo familia-iburua.

Eskera inprimatu sinatuko da.

OHARRA: Aurkeztutako eskaerako frogagarria deitzen dena, eskaerako fotokopia bat eman ahal izango du zigitatu ahal dala.

Inprimatu honetan jasotako datuak fitxategi batean sartuko dira, hurren arduraduna Justizia Ministerioa da, Datu Pertsonalen Babesteko zuzendaria 15/1999 L.O.-aren arabera.

www.ejpaliza.gip.eus

Ziurtagiri hori ez zaito isarri aplikatuko. Ziurtagiri baten bidez elektronikoan bidez jaulki eta bidalko da eskatutako telefono mugokorra. Ez da oniko posta bidez bidalko.

Dokumentu makina edo makulatu bidez behar da, zuzentzerik edo zirkonbiri gabe.

Eskarekin batera dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- Informazio-ekitala espainiera bada:
 - Indarrean dagoen jatorriko NAN edo haren fotokopia konputatua. Posta bidez aurkezteko, derrogekoa da dokumentuaren jatorriko fotokopia konputatua.
- Informazio-ekitala atzerriarra bada:
 - Indarrean dagoen jatorriko egiaztatu (NIE), pasaportea, erdiagoa notario-argiri edo haren baliokidea, edo haren fotokopia konputatua. Posta bidez aurkezteko, derrogekoa da dokumentuaren jatorriko fotokopia konputatua bidaltzea. Sexu-datuak: Emisio: Zentzualak: Espainiako justizialarriak izan diren bitartean gainera informazioa izan da. Atzerriko ager aurrekariaren ziurtagiri bat eskatu behar da bere nazionalitateko herritaren. Ziurtagiri hori, gero, Sexu-datuak: Emisio: Zentzualak: jautsiak dituztenak batera erantsi behar dira.
- Eskera interesatuek aurkeztu behar diren irudikatzen duen, eta pertsona adingabeen kasuan, honen, eta adin txikiaren kasuan, aurrez akreditatzea dagoen dokumentuaren haren notarioa ziurtagiri gain, zera ere aurkeztu behar da:
 - Ordakutako pertsonaren indarrean dagoen notario-argiaren jatorriko dokumentu edo fotokopia konputatua.
 - Ordakutako zuzenbidean balioketako beste edozein baliabideren bidez egiaztatzen duen dokumentuaren jatorriko dokumentu edo fotokopia konputatua, haren fede-emakia bada (notarioak baimendutako agiri publiko, notarioak legetatutako sinadurak dituen agiri pribatu edo interesatuek langile publikoen aurrean emandako dokumentu pribatu, ingurumen bidez ageratu hura jaso behar duen) edo familia-iburua, adin txikiaren kasuan.

Sinatu egingo da eskaeraren inprimatu.

OHARRA: Aurkeztutako eskaeraren egiaztatze behar bada, eskaeraren fotokopia aurkezteko hura sinatuko.

Inprimaketa bidez bidaltzeko datuak Justizia Ministerioaren ardurapeko fitxategi batean sartuko dira, zuzendaria 15/1999 L.O.-aren arabera.

www.ejpaliza.gip.eus



Gasteizko Udaleko Hezkuntza Kontseiluaren izenburua irakurri eta "izugarrizko zaplaztekoa" hartu ondoren jo zuen Behatokia herritar batek. **12**

Gasteizko Udalak berak "akats tamalgarrizat" jo zuen gertaera. Izan ere, txostenaren aurkezpena bera hilabete pasa lehenago gaztelaniaz egin ondoren, ganorazko itzulpena egiteko tartea ez zuen hartu herritarrak eskatu zion arte. **13**

Antzekoa da Bilbon Renferen Abandoko geltokiko txartel irakurgailuaren kasua **14** RENFERen makina

Administrazioek herritarren eskura jartzen dituzten inprimaki, paper edo dokumentuez gain, haien laguntza jasotzen duten entitateen komunikazioetan hizkuntza jokabide desegokiak zuzentzea lortzen du erabiltzaileen ahaleginak **15, 16**


12




14



15



16




Eraikin eta egoitza publikoetan erabiltzaileei zein langileei zuzendutako oharretan eta karteletan, oraindik orain, hutsune asko atzeman dituzte herritarrek. Osasun Etxeetako hizkuntza-paisaiarekin lotutakoak dira horietako asko. Nahiz eta testu laburrak eta landuak ez izan, ez da horiek paratzeko orduan hizkuntza irizpidea kontuan hartzen. Gerora, herritarren kexa helarazitakoan, lortzen da euskaraz ere agertzea. Hona zenbait adibide: **17, 18, 19, 20**

A63 eta A64 autopistetan, Baiona eta Beskoitzeren arteko bidean egindako obren ondorioz, ele bitan ziren panelak frantses ele bakarrekoekin ordezkatu zituzten. Autopista kudeatzen duen VINCI Autoroutes enpresarekin harremanetan jarri zen Behatokia herritarren artean sortu zuen arrangura helarazteko.

Frantziako Estatuarena da erantzukizuna eta erreglamenduak frantsesa ez den beste hizkuntzarik baimentzen ez badu ere, euskarari presentzia eskaintzeko disposizioa azaldu zuen autopistak kudeatzen dituen enpresak. Ondorioz, A63 eta A64 autopistetako panel guztiek ez, baina batzuek euskaraz hitz egingo dute. **21**

17




18



19



20



21



22

Paueko unibertsitateko eta honen adarra den Baionako unibertsitateko fakultateko ikasleen mugimenduak azken urteetan egindako aldarrikapenaren ondorioz, tokiko hizkuntzen batzordea sortu zen 2016 urtean. Pautetik Baionaraino, egun frantsesez soilik dauden seinale guztiak hiru hizkuntzetan jartzeko, (frantsesez, okzitanieraz eta euskaraz) proposamena lantzen ari dira hau idazteko uanean. 22

Itunpeko dentista-talde batekin elkarlanean 6 eta 15 urte bitarteko haur guztiei hortzak doan zaintzeko aukera eskaintzen du Haurren Hortzak Zaintzeko Programak (HHZP). Dentista euskaldunak identifikatzeko eskaera egin zuten behin baino gehiagotan gurasoek Nafarroan. Bada 2016an programa horren barruan familiei helarazten zaien dentisten gidan identifikaturik ageri dira euskaraz dakiten profesionalak. 23

Erantzun positiboa izan dute administrazio ezberdinekin lotutako beste arlo edota jarduera batzuekin zerikusia duten gertaerek ere.

Zarautzen, Zumaian eta inguruko herrietan erditze aurreko prestakuntza ikastaroa euskaraz jasotzerik ez zutela-eta jo zuen Behatokira bertako herritar batek. Ikastaroa euskaraz jaso nahi baina Osakidetzak eskaintzen ez zuenez, ordainpekoa egin behar izan zuten. Donostiako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerenteak bidali zion erantzuna esanez, erditze aurreko prestakuntza aurrerantzean euskaraz egiteko aukera emango zaiela hala eskatzen duten emakumeei. 24

Antsoaingo Udalak 2016 urteko urtarilean eginiko lan publikoaren eskaintza argitaratu bezain pronto jarri zen herritar bat gurekin harremanetan deialdiak ez zuelako hizkuntza irizpiderik kontenplatu. 25

Antsoaingo Udalarekin harremanetan jarri zen Behatokia herritarrak adierazitakoa jakinarazteko. Ondotik oinarriak aldatu eta 2016ko martxoan argitaratu zen deialdi berria euskararen ezagutza baloratuz. 26



Table with columns for '2016' and 'HHZP' (Haurren Hortzak Zaintzeko Programak) listing dental professionals and their contact information.

Official document from Osakidetzak (Health Services) regarding the 'Hizkuntza Eskubideen Bihotzia' (Language Rights Heart) project, including contact information and a signature.



25

3. ALDIZKARIA - 2016ko urtarrilaren 7a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA - 2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA

- o ANTSOAIN
o Deialdia, zergandik bat osatzeko, zerbitzu antzetzako enplegatu izateko laguntza bat hautapen bitartez eta aldi baterako kontratario bidez, betetzeko, sortzen diren beharrei erantzutearen

- 2.1. Parte hartu nahi dutenek, eskubideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:
a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo Europar Batasunak izanpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa.
c) Eskararak aurkezteko epea bukatzen den egunean, DBIko graduatuen titulua, Eskola graduatuen titulua, erdi mailako Lambie Hazkeltokia edo horien balioak izateko titulua, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak oraindu izanaren gordekin.
d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinak gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzuztik berezita ez izatea.

47. ALDIZKARIA - 2016ko martxoaren 9a

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA - 2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA

- o ANTSOAIN
o Altitza deialdiaren einarrietan zergandik bat osatzeko zerbitzu antzetzako enplegatu izateko laguntza bat hautapen bitartez eta aldi baterako kontratario bidez betetzeko. Antsoaingo Udalean sortzen diren beharrei erantzutearen

- ERABAKI DA:
1. Onartzea Juan Jesús Mirdegia Guruceagak aurkeztu duen gora jotzeko errekurtoa, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko urriaren 21ean hartutako erabakiaren aurka euskararen balorazioari buruz zerbitzu antzetzako enplegatu izateko laguntza bat hautapen bitartez eta aldi baterako kontratario bidez betetzeko zerrenda bat osatzeko deialdian, eta ondorioz, aklatzea ondoan zehazten diren deialdiaren oinarriak:
A) Bosgarren oinarria, eta honela utzi:
"Bosgarrena.—Hautapen prozesua.
Hautapen prozesuan egongo dira lehiaketaldia, horretan euskaraz jakitea baloratu da, eta oposizio aldia, horretan bi proba egingo dira, bata teorikoa da, eta bestea praktikoa, eta biak ere baztergarriak izango dira

Nafarroan azkeneko hamarkadetan bizi izan den egoera bidegabeari eta mingarriari amaiera ematen hasteko urratsak eman ziren 2016 urtean.

Hogei urteren ondoren euskarazko eskaintza handitu zuen Iruñeko Udalak haur eskolatan. Hogei urte luzez bi haur eskola besterik ez dira izan Iruñean eta biak Txantrea auzoan. 2016 urtetik aurrera bi haur eskola horiei beste bi gehitu zitzaizkien: Donibane auzokoa eta Arrosadiako Printzearen Harresi.

Berri ona euskarazko eskaintza bikoiztu egin delako eta Iruñeko auzo gehiagotara iritsi delako.

Lorpena da. Urtetan aukera horren alde lanean aritu diren familiek, Iruñean euskararen normalizazioan diharduten eragileek eta beste hainbat herri mugimenduk elkarlanean egindako ahaleginaren emaitza. Euskaraz eskolatu nahi dituzten familien eskubidea bermatzeko urrats bat. Urtetako bidegabekeriarekin bukatzeko lehen aldaketa.

Baina berdintasunean eta orekan bizitzeko urrats gehiago beharko dira, oraindik ere, hainbat umek euskarazko plazarik gabe segitzen baitute. **27**

UPNren gobernuak urtetan trabak jarri izan zizkion ETB Nafarroan hedatzeari. Horrela, Barcinaren Gobernuak 2015ean jarritako salaketa bati bide emanez, Espainiako Industria Ministerioak Nafarroan ETBren kanal guztien emisioa eteteko agindu zuen 2016ko apirilean.

Egun horretan bertan, arratsalde, jende andana bildu zen UPNren egoitza aurrean protesta egiteko eta sinadura bilketa ere abiatu zen. **28**

Irailtik aurrera, Euskal Telebistaren seinalea itzuli zen nafar etxeetara Vaughan kateak haren telebista lizentziari uko egin eta gero.

27**28**

Orain arte aitatutakoez gain, aipamen berezia eskaini nahi dio Behatokiak beren kabuz euskaraz bizitzeko nahia azaldu eta inguruan eragitea xede duten hainbat eta hainbat herritarri. **29**

2016 urte hasieran Donostiako Egia auzoan abiatu zuten **Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako** ekimena. Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzetik harago joan eta auzoko taldeek, elkarteek eta norbanakoek txandaka zazpi astez euskaraz aritzeko esperientzia jarri zuten abian. Euskaldunen arteko eta euskaraz egin ez baina dena ulertzen zutenen arteko harremanak euskara hutsean sustatzea, euskaraz bizitzea, zuten helburu. **29**

Handik hilabete batzuetara (2016ko maiatzean) Egiakoen lekukoa hartu eta bost astez 24 orduak euskaraz egiteko konpromisoari ekin zioten Añorgan. Egian eta Añorgan burutu zituzten egitasmoen sokatik, Donostiako Piratek Aste Nagusia euskaraz bizitzeko helburuarekin **Hartu txanpa** izeneko egitasmoa jarri zuten martxan. **31**

Aurreko hiru urteetan astebete iraun zuen Hernanin **Euskara ari du** egitasmoak. Laugarrenez jarri zuten martxan 2016an baina ez astebeteko iraupenarekin, bi hilabetekoarekin baizik. Eta helburua: bi hilabete horietan hizkuntza-portaera aldatu eta euskaraz bizitzea. Azken finean herritarrak jabetzea keinu txikiarekin aldaketa handia eragin daitekeela. Eta hori dena girotzeko, hitzaldi sorta bat eta tailer bat antolatu zituzten urriaren lehen hamabostaldirako. **30**

Euskararen Maratoiaren barruan apustu berria jarri zuten martxan Lasarte-Orian: **Baietz 40 egun euskaraz!** Urriaren 23an hasi eta abenduaren 3a bitarte, 6 astetan banatu zuten gaztelaniazko hizkuntza-ohituretatik atera eta hizkuntza-portaera euskarara ekartzeko apustua, armairutik irteteko erronka.



Lasarte-Orian bukatu aurretik, egunerokoan euskaraz bizitzeko xedearekin **75 Ordu Euskaraz** esperientzia abiatu zuten Agurainen. **31**

Azaroaren 26tik abenduaren 3ra euskara hutsean bizitzeko erronkari heldu zioten Astigarragan **100 da 100... 200 ordu euskaraz** ekimenarekin.


"Konplexuak astintzeko eta euskara erabiltzea normaltzat hartzeko" sus-tatu zuen herritar talde batek **Baietz 365!** Arrigorriagan azaroan bertan. **32**

Esperientzia eta saiakera hauek guztiek bizi normala euskaraz egiteko nahia eta konpromisoa erakusten dute, inguru guztietan euskaraz aritzeko saiakera; bere egunerokoan, etxean, lantokian, dendan, kirol taldean, tabernan, koadrilan, anbulatorioan... Esparru guztietan euskaraz aritzeko borondatea azaleratzen dute.

Hurbiletik, ingurukoengandik hasita, era gozo eta atseginean, naturaltasun osoz, gogoia piztuz, euskarari eutsi eta askatasunez bizitzeko nahia erakusten dute.

Euskaraz bizitzeko xedean bidea egiten lagunduko duen pauso bat ematea, erdarek ezartzen duten mendekotasunari modu konpartituan aurre egitea eta urratsak ematea izan da ekimen hauen guztien helburua. Bakarrik ez gaudela sentiaraztea, ekimenean bizitakoaren arrastoari segituz norberaren euskaraz bizitzeko nahiari aupada ematea, eguneroko egoeretan euskaraz naturaltasunez jarraitzeko indartzea, euskaraz bizitzeko zailtasunak modu konpartituan gainditzea. Esperientzia horietan norbanako eta kolektibo gisa erdietsitako lorpen txiki bakoitza urrats handia da.

01 Osasungintza



Osasungintza

Eremu administratibo eta lurralde guztietan zailtasun eta oztopo handiak aurkitzen dituzte erabiltzaileek zuzeneko atentzio sanitarioa euskaraz jasotzeko. Maiz egiten dute topo euskalduna ez den profesionalarekin: pediatra, familia-medikua, mediku-espezialista, administraria eta abar. Ondorioz, euskaraz jarduteko arazoak izan dituzte herritarrek. Eremu administratibo eta lurralde guztietan gertatu dira antzeko urraketa egoerak.



Donostiako Protokoloa: 26. neurria

Administrazioak kontuan hartzen ditu hizkuntza-eskubideak osasun-zerbitzuak emateko garaian.

“Iruñeko Txantrea auzoan ez dago pediatra euskaldunik. Non dira gure hizkuntza-eskubideak? Pediatra euskalduna izateko eskubidea dugu eta horixe eskatzen diogu administrazioari!”

“Donibane Lohizuneko “Groupe Elgar” eraikineko CBIM laborategietara joan behar izan nintzen uztailean erradiografia baten egitera. Telefonoz hitzordua hartu zidan idazkaria frantses elebakarra zen. Bertan topatu nuen idazkariari euskaraz eta frantsesez egin nion eta nola ez, frantsesa zen. Ez dakit euskaragatik edo azentuagatik, baina goitik behera begiratu zidan. Gero erradioa egin zidaten; ni jada erabat herabetua sentitzen nintzen, “egunon” baino ez nion erran medikuari eta nola ez, bera ere frantsesa. Azkenik doktoreak artatu ninduen diagnostikoa errateko, frantses hutsean, eta ni jadanik txiki-txikia sentitzen nintzen, ez nintzen ausartu hitzerdi bat euskaraz erraten. Eta gainera, erradiografia paperetan den-dena frantsesez idatzia. Jadanik ez nintzen ongi sentitzen gaixorik bainintzen eta oino okerrago atera nintzen handik. Erabat mesprextatua sentitu nintzen, haiek baino gutiago banintz bezala ene euskara eta euskal azentuagatik.”

“Aramaioko pediatra berria guztiz erdalduna da; ezin da berarengandik zerbitzua euskaraz jaso.”



“Eremu administratibo eta lurralde guztietan zailtasun eta oztopo handiak aurkitzen dituzte erabiltzaileek zuzeneko atentzio sanitarioa euskaraz jasotzeko.”

“Lasarteko anbulatorioan izan naiz gaur, medikuarengana eta sendategira joateko; lehena 9:10ean eta bigarrena 15:20ean. Medikua erabat erdalduna zen, eta erizainaren euskarak ez zuen A1 maila baino gehiago ematen. Biekin euskaraz hasi naiz, baina neure burua alienatuta sentitu dut eta giro behartuan. Euskaraz zerbitzua ematearen kontrako egoerak nahiko ohikoak direla esan behar dut, kasuen erdian gutxienez nire esperientziaren arabera.”

“16:15ean mamografia egitera joan naiz Galdakaoko Ospitalera eta nik euskaraz egin arren, hartu nauen langileak euskaraz hitz erdirik ere ez. Gainera, aldagelan hainbat ohar gaztelania hutsean zeuden.”

“Duela 7 bat hilabete hasi nintzen Groseko anbulatorioan dermatologiako espezialistarekin. Arreta egiten zidan medikua, Lera doktorea, erabat erdalduna zen. Orain mediku berria jarri didate, hau ere erabat erdalduna, eta protesta egin nuen, mediku euskalduna nahi nuela jakinarazi nien pazienteen arretarako gunean. Berehala konponduko zutela esan zidaten, eta gora behera batzuren ondoren Zubizarreta doktoreak hartu ninduen. Azkena sartu diren mediku guztiak erdaldunak direla esan zidan. Horrela bermatuko digute euskaldunoi arreta euskaraz?”

“Zornotzako anbulatorioko pediatriak gaztelaniaz egiten du PLII plaza duen arren. 6 urteko alabak ez dio ulertzen.”

“Mediku eta pediatra euskaldunak eskatu ditut Arrotxapeako osasun etxean. Zuzendariak erantzun dit osasun etxeko osagile eta pediatra lanpostuetarako ez dela betekizun hori eskatzen eta Nafarroako Gobernuari edo Parlamentuari dagokiola euskaraz jakitea betekizun izan dadin lege-aldaketak egitea.”

Familia-medikua edota pediatra euskalduna egokitu zaien kasuetan, horien opporrak, baimenak eta bestelakoen ordezkapenak egiteko orduan ere arazoak sortzen dira zerbitzua euskaraz eman ahal izateko.

“Ordiziako osasun-zentroko gure pediatriak (titularraren ordezkoa da) ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunik eta, ondorioz, ezin izan dugu zerbitzua euskaraz jaso.”

“Gaur Etxarri Aranatzeko osasun-etxera joan gara umeari errebisioa egitera. Pediatra euskalduna da, baina gaur ez zegoen eta ordezkoa erdalduna da.”

“Aste guztian nago Aulestiko medikuarengana joateko premian, baina ordezkoa dago euskararik ez dakiena. Osakidetzak beti egiten du berdin (salbuespenak albuespen). Aste honetan izan dut aukera joateko nire lan ordutegia dela eta. Baja hartzeko zorian nago, baina ez noa medikuarengana motibo horregatik.”

“Segurako kontsultategira etortzen den familia-mediku titularra bajaran dago aspalditxoan. Bere lekua betetzeko, ordea, azken hilabeteetan medikuen etengabeko joan etorria daukagu gurean. Osakidetzak gure herrira bidali dituen medikuetatik bakarra ere ez da izan euskalduna, eta, noski, une honetan daukagun medikua ere ez da euskalduna.”

“Hernaniko Aristizabal kalean dagoen osasun-etxean nire medikuaren ordezkoren neska gazte batek ez zekien euskaraz, eta gazteleraz hitz egin behar izan nuen. Nire medikuak berak ere ez daki euskaraz.”

“Osasun arloko adituen esanetan pazienteak da, pertsona, da osasun-zerbitzuaren muina.”

Osasun arreta euskaraz jasotzeko oztopoez gain, harrerako langileekin edota administrariekin euskaraz jarduteko zailtasunak izan dituzte zerbitzu-hartzaileek honako adibideetan ikus daitekeenez.



Donostiako Protokoloa: 18. neurria

Jendaurrean diharduten langileek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzen dute administrazioek.

“Kalitatezko osasun arreta zuzenki dago lotuta arreta hori pazientearen hizkuntzan emateko gaitasunarekin.”



“Medikuarekin hitzordua eskatzeko Igorreko anbulatoriora deitu nuen uztailearen 27an. Euskaraz hitz egin nuen eta idazkariak gaztelaniaz erantzuten zidan eta gainera, ez zidan ulertu. Azkenean, gaztelaniaz hitz egin behar izan nion.”

“Hezur-muin emaile izateko informazioa jasotzera eta analisisa egitera joan naiz gaur goizean Basurtuko Ospitalera. Kanpo kontsultetako informazio postuan egon denak (euskaraz egiten dutela markatzen duen leihatilara joan naiz) ez dit ulertu eta analitikak egiten dituzten gunera bidali nau. Analituketan egon denak ere ez nau ulertu eta gaztelaniaz errepikatu behar izan diot nora joan nahi nuen. Eta azkenik, donazioari buruzko informazio saioa gaztelania hutsean izan da, nahiz eta euskaraz agurtu eta entregatu beharreko agiriak euskaraz eramán ditudan.”

“Antsoingo osasun-etxean paper bat hartzera pasa naiz eta harreran inork ez nau euskaraz artatu.”

“Eguerdiko 12:28an Hondarribiako anbulatoriora deitu dut hitzordua hartzeko eta erantzun didan pertsonak esan dit euskaraz ez zuela ulertzen eta erdaraz hitz egiteko.”

“Maiatzaren 3a, goizeko 9:15; Barañain II osasun-etxeko harreran 3 langile. Egokitu zaidan langileari euskaraz zuzendu natzaio. Ez dakiela euskaraz erantzun dit. Ea bere lankideek badakiten galdetu diot. Lankideetako bati galdetu dio, eta ezetz. Bertze behin, ez dut administrazioarengandik zerbitzua euskaraz jaso, nik hala nahi nuen arren. Euskaraz bizi nahi dut!”




“Galdakaoko Ospitalean gehienetan ez naute euskaraz artatzen. Hitzordu berri bat hartu behar dudanean, gaztelaniaz hitz egiten didate “me deja su tarjeta de Osakidetza por favor...”, (Osakidetzako txartela utziko didazu, faborez) eta nik euskaraz egiteko eskatzen dudanean, beste lankide batengana bidaltzen naute batzuetan. Gaztelaniaz aritzen direnek ez dute horrelako arazorik. Ni, berriz, lotsatu egiten naiz jende guztia begira dudala sumatzen dudanean. Telefonoz ere euskara zapalduta dago. Gehienetan gaztelania da hizkuntza bakarra. Administrazio publiko batean jendaurrean lan egiteko ezinbestekoa deritzot elebiduna izateari, euskaldunon eskubideak bermatzeko. Galdakaoko Ospitalea, gainera, eskualde euskaldun petoa da.”

Idatzizko erabileran herritarrek ez dituzte egiaztagiriak edo gaixotasunari buruzko jarraibideak, azterketa medikuen emaitzak, iradokizunak eta antzekoak eurek hautatutako hizkuntzan, euskaraz, jasotzen. 1

Donostiako Protokoloa: 17. neurria

Administrazioek hizkuntza gutxituan (idatziz zein ahoz) ematen dizkiete beren zerbitzuak herritarrei.

1



2

Medikamentuei buruzko informazioan ez da euskara ezertarako kontuan hartzen. **2**




Donostiako Protokoloa: 103. neurria

Produktuen osasun eta segurtasunari buruzko mezuak, hala nola sendagaien jarraibideak, produktuen arriskuei buruzko informazioa, etab., hizkuntza gutxituan ere eskuragarri daude.



Osasun etxeetan erabiltzaileei argibideak edota informazioa emateko testu eta ohar laburrak ere asko eta asko dira erdara hutsean ageri direnak. **3**

3



Erabiltzaileei ez ezik, sektoreko langileei zuzendutako komunikazioak ere erdara hutsean igortzen zaizkie usu.

Asunto: Formación JAKINSAREA

Hola:

Con el objeto de capacitar a los equipos en el uso de la herramienta informática Jakinsarea que se presentó recientemente se realizarán la próxima semana 4 sesiones de media hora de duración. Las sesiones serán en el salón de actos y no es necesario apuntarse previamente. Si es importante que quienes acudan sean puntuales. Cuando esté disponible se enviará esta información en euskera.

Un saludo,



Adjuntos de Enfermería
Unidad Docencia y Formación Continuada
OSI Araba ESI


Hurrengo gertaerak, berriz, modu argigarrian laburtzen du euskaraz jardun nahi duten profesionalak aurkitzen dituzten trabak.



Donostiako Protokoloa: 46. neurria

Administrazioak neurriak hartzen ditu lan-jarduna eta langileen arteko komunikazio ofizialak hizkuntza gutxituan egin daitezela.

“Berriki Barrualde-Galdakao ESIan mediku egoiliarren prestakuntzarako ikasketa burua izendatzeko lehiaketa publikoa zabaldu da. Hautaketa prozesuan parte hartzeko proiektu bat aurkeztu behar da, eta euskaraz aurkeztu dut nire proiektua. Epaimahaiko kide guztiak erdaldun elebakarrak dira, ez dago euskaldunik, eta euskara teknikaria bitartekari gisa erabiliz, testua itzuliko dutela esan didate. Euskaraz idazteko, hitz egiteko eta lan egiteko eskubidea aldarrikatzen dut inolako traba edo oztoporik gabe, bai eta medikuntza ikasleek medikuntza euskaraz ikasteko, eta mediku egoiliarrek espezialitatea euskaraz burutzeko duten eskubidea ere.”



“Profesional elebakarrek ez dute bermatzen zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izateko eskubidea.”

Bigarren mailako herritar sentiarazten duten egoera hauen aurrean herritarrek inizatiba hartu dute beste behin: “Osasun Etxeak eta Biok Euskaraz” ekimena jarri zuten martxan Iruñeko Arrotxapean. ⁴

Osasun arreta euskaraz jasotzeko zailtasunen arrazoiak emanez arduradunen eta ordezkarien erantzun gehien-gehienak doaz bide beretik: mediku/pediatra, profesional euskaldun eskasia dago edota lanpostuak ez du euskararen ezagutza ezarria.

Nafarroako egoeraren kasuan Vasceucearen Legeak suposatzen duen galga da egoera horien guztien arrazoi.

Herri eta gune euskaldunetan ere osasun-asistentzia euskaraz jasotzeko zailtasun handiak dituzte Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, UEMAK, berak 2016 urte bukaera aldera salatu zuenez: UEMAKo kide diren herrietako osasun etxeetan familia eta larrialdi medikuen artean, 233tik 53 dira euskaraz aritzeko gai ez direnak; UEMAKo lehenendakari den Josu Labakaren esanetan, %22. Pediatren kasuan, berriz, 56tik 20 ez dira gai euskaraz aritzeko: %35. ⁵

4



5

berria

izartea >

.au medikutik batek ez daki euskaraz Jemako herrietan

amilia medikuen eta pediatren egoera aztertu dute: pediatren herenek ez dakite euskaldunak eskatu dituzte kontratu berrietarako



Horrek erakusten du euskara ezagutzeko betekizunari ematen zaion garrantzia ez dela nahikoa euskararen erabilera bermatzeko, ez dela nahikoa euskara zerbitzu hizkuntza eta harreman hizkuntza izateko. Honek kolokan jartzen du euskaldunei ematen zaien osasun arretaren kalitatea.

Horrela, profesionalen gaitasun linguistikoak berebiziko garrantzia dauka herritarren hizkuntza hautua bermatzeko eta herritarrei kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko.

Baina kontrako norabidean egin dira zenbait lan deialdi 2016an. Euskararen ezagutza ez da nahitaezkoa izango eta, kasuren batean, atzerriko hizkuntzak jakitea euskara jakitea baino gehiago baloratuko da.



Donostiako Protokoloa: 23. neurria

Bai egungo langileek bai langile berriek hizkuntza-gaitasun egokia dutela bermatzen du Administrazioak.

“Osasunbidea–Nafarroako Osasun Zerbitzuko Erizaintza Obstetrikoginekologikoaren arloko erizain espezialista izateko 7 lanpostu oposizio lehiaketa bidez betetzeko lan deialdian, eremu mistoan aritzeko gehiago baloratu da atzerriko hizkuntzak jakitea (ingelesa, frantsesa, alemana 2 puntu) euskaraz jakitea baino (1,17 puntu).”



Donostiako Protokoloa: 73. neurria

Unibertsitate mailako ikasgai guztiak hizkuntza gutxituan eskuragarri daude.

Beste batzuetan protokoloek eta planek agintzen duten irizpideak albo batera utziz jokutzen da eta horrek urraketeki bidea irekitzen die.

“Osakidetzako II. Euskara Planean adierazten denez, Osakidetzako “harrera, onarpen eta informazio unitate” delakoetan lanpostuen %100ean da beharrezkoa euskararen ezagutza egiaztatzea (2. Hizkuntz Eskakizuna) langilea hartzerakoan. Gaur egun oraindik Osakidetzako harrera, onarpen eta informazio unitate ugaritan baldintza hori betetzen ez duten langileak kokatzen dira aldi baterako lanetarako. Zonalde zehatz bat aipatzearen, azkenaldian horrelakoak gertatzen dira Erandio, Zamudio, Alango, Berango, Mungia, Astrabudua, Areeta, Algorta edota Gorliz bezalako herrietan. Egoera honen ondorioz, arreta eta zerbitzu elebiduna jasotzeko eskubidea urratua izaten ari da iraunkorki.”


Bien bitartean, medikuntza ikasleek, iaz egin bezala, ikasketak euskaraz egiteko oztopoak salatu zituzten. **6**

Paziente euskaldunei zerbitzua euskaraz ziurtatzeko berebiziko garrantzia dauka profesionalak euskaldunak izateak. Profesional elebkarrek ez dute bermatzen zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izateko eskubidea.



6

02 Herrizaingoa Segurtasuna



Herrizaingoa

Segurtasuna

Segurtasun kidego mota guztietako agenteek urratzen dute herritarren euskaraz jarduteko eskubidea, hasi Guardia Zibila eta Polizia Nazionalatik, Ertzaintza eta Foruzaingotik jarraitu eta udaltzain eta segurtasun zaindariatara artekoek. Sarritan agintekeria ez ezik errespetu gutxirekin tratatzen dituzte herritarrak, euskaraz egitea itsusi dela adieraziz edo jarrera desegokiak agertuz.



Donostiako Protokoloa: 38. neurria

Administrazioak neurriak hartzen ditu poliziako kideak hizkuntza gutxituan aritzeko gai direla bermatzeko.

“Iruñeko Udaltzaingora deitu dut 22:13an, kartera bat topatu dudala esateko. Bada, hauxe izan da udaltzainaren erantzuna: “sí, sí, ya sé que has perdido la cartera, pero me lo dices en castellano!” (bai, bai, badakit kartera galdu duzula, baina esaidazu gaztelaniaz). Deia grabatuta edukiko dute.”

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Tokiko Erakundeen Legea onartu eta indarrean sartu zen 2016 urtean. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek euskararen erabilera sustatzeko legezko ahalmena izango dute lehenengo aldiz.


Espainiak EAEn duen Gobernu Ordezkaritzak hainbat udalen aurkako helegitea jarri zuen, UEMAr sartu izana salatuz, horrekin udalek dituzten eskumenak gainditzen dituztela argudiatuta.

Bestalde, Baztango euskara plana baliogabetu zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiak. Sententziaren arabera Euskararen Foru Legea zein administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Dekretua urratzen ditu planak. Batik bat, euskara lehenesteari bidea irekitzen diolako.

Testuinguru honetan, 2016 urtean lan deialdi ugari egin dira, batez ere Nafarroan, hutsik dauden lanpostuak bete, edo zerbitzuetan sortzen diren beharrei erantzuteko lan-poltsak osatzeko. Lanpostu gutxi batzuetan salbu, euskaraz jakitea ez da nahietazkoa izan eta merezimendu modura ere ez da baloratu. Nafarroako Gobernuak berak eman dituen datuen arabera, hezkuntzako lanpostuak kenduta, plantilla organikoko lanpostuen % 0,4an soilik eskatzen da euskaraz jakitea. **9**







Euskararen ezagutza derrigorrezko duten administrazio lanpostuak



KULTURA, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA
Euskararen ezagutza ezarria duten (departamentuko) lanpostuak
%0 (0 lanpostu)

Gainerakoak %100 (379 lanpostu)



Donostiako Protokoloa: 23. neurria

Bai egungo langileek bai langile berriek hizkuntza gaitasun egokia dutela bermatzen du Administrazioak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzako postuen %43k (3.330) ez dute derrigortasun datarik eta langileen %45k oraindik ez dute beren lanpostuari dagokien euskara maila frogatu. **10**

Behe Nafarroan, Xiberoan eta Lapurdin euskarak legezko aitortzarik gabe jarraitzen du. 2016ko otsailean Frantziako Asanblea Nazionalak atzera bota zuen, boto bakarrarengatik, Frantziako Estatuko hizkuntza gutxituak bultzatzeko proposamena.




Donostiako Protokoloa: 5. neurria

Legeak errekonozimendu ofiziala eta estatus ofiziala esleitzen dizkio hizkuntza gutxituari.

Ipar Euskal Herriak berezko instituzioa, Herri Elkargoa (HELEP), sortzeko erabakia hartu zuen 2016an. Honek erakunde publikoetan euskararen eta euskal kulturaren aldeko politikak egiteko aukerak eskaini ahalko ditu.

Hala ere, lanpostu publikoen horniketan euskara galdegin gabe, nekez bermatuko dira euskal hiztunen eskubideak administrazioekiko harremanetan zein lan jarduna garatzeko orduan.


10 EUSKO JAURLARITZAREN POSTUEN DERRIGORTASUN DATAK



■ Derrigortasun datarik ez ■ Derrigortasun datarekin




“Lanpostu publikoen horniketan euskara galdegin gabe, nekez bermatuko dira euskal hiztunen eskubideak administrazioekiko harremanetan zein lan jarduna garatzeko orduan.”



06 Kultura

Aisialdia

Kirola



Kultura, aisia, kirola

Eremu formaletik kanpo, aisialdiaz, kulturaz eta kirolaz euskaraz gozatzeko aukerak mugatuak izaten dira maiz. Esparru horietara bideratzen diren hainbat jardueretan bazterturik geratzen dira euskara eta euskal hiztunak. Baita umeei eta gazteei zuzendutako jardueretan ere.

Gaur egun, gero eta garrantzia gehiago ematen zaion kirol arloarekin lotutako jardueretan parte hartzeko tartea hartzen duenean, maiz ikusten da marjinaturik bere burua euskal hiztunak. **1**



Donostiako Protokoloa: 52. neurria

Eskolaz kanpoko jarduera guztiak eskuragarri daude hizkuntza gutxituan.

Administrazioek kanpoko enpresen bidez ematen dituzten zerbitzuetan ohikoa izaten da hizkuntza-irizpideak ez ezartzea, edota ezarrita ere, haiek ez betearaztea. **2**

“Eremu formaletik kanpo, aisialdiaz, kulturaz eta kirolaz euskaraz gozatzeko aukerak mugatuak izaten dira maiz.”



7 MAYO 2016 ·
CARRERA DE OBSTÁCULOS 100% INTERURBANA · 9KM
SALIDA Y META MUSEO GU

7 MAYO 2016 · BILBAO
CARRERA DE OBSTÁCULOS 100% INTERURBANA · 9KM Y 25 OBSTÁCULOS DE PURA DIVERSIÓN
SALIDA Y META MUSEO GUGENHEIM

¿SERÁS CAPAZ?
7 MAYO 2016 · BILBAO

CAPTACIÓN DE JUGADORES 2016-2017 FÚTBOL SALA

SÓLO nos faltas TÚ SUB-23 nacidos en 1994, 95, 96, 97

JORNADA PUERTAS ABIERTAS MAYO

4	6	11	13
18	20	25	27

19h Polideportivo Landako

IMPRESA dular S.L.L

SERVICE SPORT ANIMATION JEUNESSE

Antenne du Trinquet Iturbidea 05.59.85.94.26

- Point information jeunesse 12 - 25 ans
- Espace jeunes
- Accueil de loisirs 12 - 17 ans ouvert du lundi au vendredi de 14h à 17h
- Mission Locale ouvert le mercredi de 9h à 12h
- Service des Sports Sport scolaire Manifestations sportives Sports vacances Ouvert lundi et mercredi de 8h30 à 12h30
- Service garderie périscolaire Ecole du Bourg : Ouvert lundi, mardi, jeudi et vendredi de 7h30 à 8h50 et de 16h45 à 17h45 Ecole d'Oihette : Ouvert lundi de 9h à 11h

EMIS

D X N X S T I A

ELECTROFITNESS

EL FUTURO DEL FITNESS YA ESTÁ AQUÍ

Acércate a descubrirlo, ¡te lo agradecerás!

www.emsdonostia.com

¡Ven y participa!

III. JORNADA DE TÉCNICACIÓN

JUENES DE 7-14 AÑOS

ENTRADA LIBRE

Domingo 20 Octubre
Hora: 10-11:30
Cubierto Colegio Urreta

Haur eta gazteak kirol jardueretan entrenatu ahal izateko entrenatzaile tituluak eskuratzeko ematen diren ikastaroak ere gaztelaniaz izaten dira asko:

“Kirolaren Euskal Eskolak entrenatzaile tituluak eskuratzeko ematen dituen ia ikastaro guztiak gaztelaniaz dira. Titulu horiek haur eta gazteak eskolaz kanpoko kirol jardueretan entrenatu ahal izateko ematen dira. Kontuan izanik gazteen %80-90ek D ereduan ikasten dutela, ez da normala entrenatzaile tituluak gaztelaniaz atera behar izatea. Euskarak kirol munduan bere lekua har dezan ezinbestekoa da entrenatzaileek euskara erabiltzea.”



Donostiako Protokoloa: 85. neurria

Irakasle-eskolek hizkuntza gutxituaren ezagutza eta erabileran trebatzen dituzte irakasleak.

Euskara eskolatik atera eta aisialdira eramateko hainbat elkarte lanean ari diren bitartean, erakunde publikoek babestutako eta lagundutako hainbat jardueratan ez dira euskal hiztunak kontuan hartzen.

“Arabako Gimnasia Federazioak abenduaren 17an Gasteizko Mendi-zorroza kiroldegian antolatutako Gabonetako ekitaldia gaztelania hutsean izan zen. Ekitaldiak Gasteizko Udalaren laguntza du. Gasteizko alkatea bertan egon da sariak banatzen, eta oker ez banago, baita Euskara eta Kirol zinegotzia ere. Gasteizko Udalak eta Arabako Gimnasia Federazioak euskararekiko eta euskaraz bizi nahi duguneko sentsibiltate eta errespetu handiagoa izan beharko luke.”

Kirol eremutik harago, gazteei zein publiko zabalari eskainitako kultura eta aisialdirako programazioetan ez dira euskal hiztunak kontuan hartzen. 3



Donostiako Protokoloa: 173. neurria

Bada kuota bat instituzioek antolatutako edo haiek diruz lagundutako kultur programazioetan hizkuntza gutxituan sortutako kultur adierazpideak bermatzeko.



Donostiako Protokoloa: 184. neurria

Filmak hizkuntza gutxitura itzultzen dira (azpi-idatziekin nahiz bikoiztuta).

“Gabonetan “Amilaren sekretua” izeneko filma eman zuten Muskizko Meatzari aretoan. Euskaraz iragarrita zegoen, baina gaztelaraz jarri zuten. Euskarazko filma ikusteko sarrera ordaindu eta azkenean gaztelaniaz ikustera behartuta.”

“Pozalagua kobazuloa euskaraz bisitatzeko aukerarik ez dute ematen. Web-orrian ezin da aukeratu bisita gidatua zein hizkuntzatan egin nahi duzun eta bisita hasten denean, bestelako aukerarik eman gabe, gidaria gaztelania hutsean zuzentzen zaie bisitariei. Behin bisita amaituta, harrera lekuan galdetu dudanean zer egin behar den bisita euskaraz egiteko, erantzun didate horretarako aukera bakarrak direla bisitari guztiak euskaraz egin nahi izatea edota taldea osatzea. Kontuan hartzen badugu bisitaldi bakoitzean 55 pertsona sartzen direla, argi geratzen da aukera horiek ez direla bideragarriak ez familientzat, ez eta partikularrentzat ere. Beraz euskaldunok ez dugu kobazulo eder hauek euskaraz bisitatzeko benetako aukerarik.”

3



Buenos días, [REDACTED]

Para poder concertar la visita, necesitaría saber la fecha, horario, tipo de grupo y número de personas que van a venir para poder informar al guía.

Para las visitas guiadas en euskera, sólo contamos con un voluntario cultural y estamos sujetos a su disponibilidad, aunque es una persona muy comprometida que siempre hace lo posible para atender a los grupos euskaldunes.

También te agradecería si me puedes indicar qué tipo de visita queréis, general, de una época o temática concreta, etc.


Quedo a la espera de tu respuesta.

Un cordial saludo,

Marta Arriola Rodríguez

TÉCNICO SUPERIOR DE MUSEOS
MUSEOETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

GOBIERNO DE NAVARRA - NAFARROAKO GOBERNUA



Gazte jendeari bideratutako informazioa zabaltzeko unean huts egiten dute sail edota departamentu ezberdinek. **4**

Zenbaitetan, gainera, lehenago egiten zaio leku atzerriko hizkuntzei. Horietako asko erakunde publikoek babestuta edo lagunduta diren neurrian, euskara kontuan hartu behar badute ere, ez da beti horrela izaten. Bilboko Udalak laguntzen duen Bilbao BBK Live Festival horren adibide. **5**


Donostiako Protokoloa: 181. neurria

Kultur ekitaldietan (programetan, paisaian, edukian, etab.) hizkuntza-irizpideak finkatzen dira, hizkuntza gutxituaren ahozko nahiz idatzizko presentzia bermatzeko.

Baina nola eskatuko dio Bilboko Udalak besteei berak egiten ez duena? **6**

“Herritar moduan idatzi dut Bilboko Udalaren <agendakulturala@bilbao.eus> helbidera, eta erdara hutsean erantzun didate, ‘normal-normal’. Ez ote dakite, ez ote dute jakin gura, herritarrak hautatzen duela -legediak hala zehaztuta- administrazioagaz zein hizkuntzatan egin; hau da, administrazioak hizkuntza bietan jardun behar duela aldi berean herriari zuzentzen zaionean, eta herritar solteak zein hizkuntzatan diharduen hizkuntza horrexetan erantzun behar diola. 2016 urtean gaude, bada! Euskararen normalizaziorako EAEko Legea ni jaio aurretikoa da, gero! Eta Araba-Bizkai-Gipuzkoako Estatutua are aspaldikoagoa! Noiz arraio bete behar ote du legedia herri-administrazioak? Euskaldun herritarron hizkuntza-eskubideen arloan badirudi-eta ez duela ardura legedia betetzen den ala ez. Aski da.”


4



5



5



OFICINA DE INFORMACIÓN DE BILBAO BBK LIVE, CAMBIO DE BONOS POR PULSERAS Y VENTA DE ENTRADAS EN LA SALA BBK

Los asistentes a la undécima edición de Bilbao BBK Live podrán encontrar toda la información sobre el festival, así como cambiar sus bonos por...



EL MUSEO GUGGENHEIM OFRECERÁ UNA PROMOCIÓN ESPECIAL PARA LOS ASISTENTES A BILBAO BBK LIVE



EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO Y EL FESTIVAL PREPARAN UN OPERATIVO ESPECIAL PARA BILBAO BBK LIVE 2016

Erakundeak:



Babesleak:

EN AUTOBÚS

BILBORA JOATEKO:

Autobusez etorri nahiz baduzu, **TERMIBUS** da Bilboko autobusen geltoki nagusia. **Madril, Bartzelona, Gasteiz, Iruña eta Santander** hirietara doazen autobusak beratik ateratzen dira, baita **Paris** edota **Erroma** bezalako hirietara ere. Hirik gutziarekin lotuta dago **metroko 1. eta 2. lineen bidez** (San Mames geltokia) baita **Renfe** Aldiriekiri ere.

KOBETAMENDIRA IGOTZEKO:

Bilbao BBK Live jaialdia Kobetamendin ospatzen da, Bilbotik gertu dagoen mendian hain zuzen. Antolakuntzak ekitaldirako eskaintzen dituen doako autobusetan igotzen da: bai **BEC-tik** (Anso metro-geltokitik hurbil), bai **Termibus-San Mames** geltokiko inguruetatik (Basurtuko Kaputxinoen kalea).

Los autobuses circularán hasta la puerta del festival hasta las 16:00h. A partir de esa hora y debido a la concentración de público, la parada se realizará a la altura de la antigua Beyena, teniendo que realizar el tramo restante a pie.

Autobusak jaialdiaren ateraino igoko dira 16:00ak arte. Hortik aurrera eta. Iendetza dela-eta. autobusak Bevena



6



7

Donostiako Udalaren Donostia Turismo enpresa publikoak Gabonetan egindako publizitatean ez zituen Udalak onartutako hizkuntza-jarraibideak kontuan hartu eta gaztelaniaz zabaldu zuen hiria promozionatzeko kartela. 7

Kasuren batean absurdura ere iristen da egoera euskarazko ikuskizuna iragartzeko euskara bazter utzi eta informazioa erdara hutsean zabalduz. 8

Nafarroako Gobernuak 2016ko udan programatutako kultur jardueren gehien-gehienak erdaraz izan ziren Behatokian jasotako kekek azaltzen zuenez. 8




Donostiako Protokoloa: 178. neurria

Hizkuntza gutxituan egindako arte- eta kultur adierazpideak bermatuta daude azpiegitura publikoetan.

“Nafarroako Gobernuak 38 ikuskizun antolatu zituen 2016ko udako kultur programan. Estilo anitzeko artista ugari ekarri ditu, hemengo taldeak ahaztu gabe, baina euskara ardatz duten ikuskizunak oso gutxi izan dira. Gainera kultur egitaraua bera eta haren berri emateko kartela gaztelania hutsean argitaratu dira. Beraz, Nafarroako Gobernuak badauka zer hobetu euskarazko kultura sustatzeko zereginean. Ea datorren udan hala egiten duen!!”

8



9



9



10



11



Baluarteko neguko kultur programazioa ere bide beretik joan zen. 9

Kultur ondareari lotutako informazioa eta sarbidea ohikoa da erdara hutsean baino ez izatea. 10

Beste batzuetan aisialdiari lotutako informazio euskarrietan euskarari eskaintzen zaion kalitatea ez da zaintzen. 11

Kultur eskaintza orekatua izatek oso urrun dago oraindik ere. Garatzen den eskaintzan erdara nagusitzen da.

“Bilboko Udalarena den bus turistikoak Bilbon zeharreko bisitaldia gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez baino ez die eskaintzen partikularrei. Guk euskaraz eskatu arren, bisitaldian entzuten den grabazioa aipatutako 3 hizkuntzetan baino ez zegoela adierazi digute. Antza denez ikastetxeetako taldeei baino ez diete zerbitzua euskaraz eskaintzen.”

Eta agintariak beraiek ere ez dira herritar guztiekiko errespetuaren eta begirunearen eredu:



Donostiako Protokoloa: 44. neurria

Administrazioak neurriak hartzen ditu ekitaldi publikoetan hizkuntza gutxitua erabiltzen dela bermatzeko, esaterako, bilera publikoetan, aurkezpen publikoetan...

“Atzo, urtarrilak 18, Victoria Eugenia antzokian antolatu zuten Donostiako haurren danborradaren aurkezpenean udal ordezkariak erdara hutsean egin zuen bere agerraldia, hasieran soilik egin zuen euskaraz esaldi bat. Agintari batek eredu izan beharko luke eta agerraldia gutxienez elebitan egin eta euskarari indar gehiago eman, lehentasuna eskainiz. Ekitaldiaren protagonistak haurrak izanik, oraindik ere larriagoa iruditzen zait, bertan zegoen nire alabaren hizkuntza eta bertan zeuden gehientsuena euskara delako. Haurrak ikusi eta ikasi egiten dute eta Donostiako udal ordezkariak eskaini dien eredu tamalgarria iruditu zait.”

“Bilboko Arte Ederren Museoan, bisitariekin zuzenean diharduen langile baten euskararekiko ezjakintasun osoa (ulertu ere ez baitzuen egiten) salatu nahi dut, euskal hiztunonganako errespetu falta agerian geratuz eta eskubideak urratuz. Sinestezina egiten da, oraindik orain, horrelako egoerak topatzea. Kexa honen bidez espero dut egoera hauekin amaitzea.”

Kultura-jarduerara eta aisialdira bideratzen diren hainbat eta hainbat ekimenetan euskara maiz baztertuta gelditzen da. Kulturaz eta, oro har, aisialdiaz gozatzeko eskaintza orekatua izatek oso urrun dago oraindik ere.




Donostiako Protokoloa: 168. neurria

Administrazio publikoek aurrekontu orokorretan kontu-sail berezi batzuk dituzte hizkuntza gutxituko kultura sustatu eta kultura unibertsala hizkuntza gutxituaren bidez jasotzeko aukera bermatzeko.

“Kulturaz eta, oro har, aisialdiaz gozatzeko eskaintza orekatua izatek oso urrun dago oraindik ere.”



07 Lan mundua



Lan mundua

Enpresa munduan euskara lan hizkuntza izatetik urrun dago oraindik. Gabeziak oso agerikoak dira, dela langileek euskaraz lan egiteko duten eskubideari begira, dela ekoizten diren produktuen hartzaileek produktuen informazioa euskaraz jasotzeko duten eskubideari begira ere.

Euskaraz lan egiteko bitarteko egokirik ez da jartzen langileen eskura: **1**

“RTS enpresan egunero eta oso sarritan erabili behar ditugun euskarri informatikoak (pantailak, PDAk, e.a.) ez daude euskaratuta, nahiz eta langile kopuru altua izan eta horrela eskatu bada ere.”



Donostiako Protokoloa: 112. neurria

Legez babestuta dago langileek lantokian hizkuntza gutxituan lan egiteko duten eskubidea.


Ohikoa izaten da ere langileei zuzendutako informazioa eta mezuak erdaraz bidaltzea edo euskararen kalitatea behar bezala ez zaintzea. **2**




Donostiako Protokoloa: 113. neurria

Enpresek hizkuntza gutxituaren erabilera bultzatzen dute: trebakuntza-planak; etengabeko prestakuntza; lan-kontratuak eta lan-hitzarmenak; txosten, mezu, jakinarazpen eta bestelako dokumentuak; barneko lan-prozedurak; hizkuntza-paisaia; hizkuntza erabiltzen duten materialak (katalogoak, Interneteko saltokiak, publizitatea...).


“Gabeziak ageri dira dela langileek euskaraz lan egiteko duten eskubideari begira, dela ekoizten diren produktuen hartzaileek horien informazioa euskaraz jasotzeko duten eskubideari begira.”



1



2



De: [unreadable]
 Fecha: viernes, 08 de marzo de 2016 9:49
 Para: C
 Asunto: RV: Visualización panel de acceso a Aplicaciones OSI Araba

RECORDATORIO!

De: IT
 Enviado el: jueves, 07 de enero de 2016 11:24
 Para: C
 Asunto: Visualización panel de acceso a Aplicaciones OSI Araba

Buenos días

Constituida la nueva área sanitaria de la Alava, denominada como **OSI Araba**, el Servicio Informático de OSI Araba, info que el acceso a las aplicaciones seguirá siendo como el hasta ahora, con la única diferencia, que se incorpora al panel de visualización de las aplicaciones, la denominación de "Aplicaciones OSI Araba"

Desplegada esta opción, en función desde donde se realice el acceso, se visualizarán las aplicaciones con nombres a:

- **Al. Primaria** (antiguo Aplicaciones)
- **Sede Santiago** (antiguo HUA Santiago)
- **Sede Txagorritxu** (antiguo HUA Txagorritxu)

- Aplicaciones OSI Araba
- Al. Primaria
- Sede Santiago
- Sede Txagorritxu

Aprovechamos, para deseamos un feliz y prospero año 2016, Zorionak eta urte berri on.

Dept. Informático de OSI Araba
 HUA - SERVICIO INFORMÁTICO OSI ARABA

Langileen trebakuntzarako eta ekintzaitzarako ikastaroetan ez da hizkuntza-irizpiderik finkatzen haien hizkuntza-eskubideak bermatzeari begira: **3**

“Nire semea Gipuzkoako Bazkondeak gazteentzako antolatutako ‘Emprendedores’ saioretako batean izan zen iraileko azken astean, Luberri Institutuko (D eredia) beste 30 bat ikaskiderekin batera. Besteak beste Donostiako BerriUp eta Breaking Molds enpresetako kideak izan zituzten bertan. Biek, eta saioa zuzentzen zuen aurkezleak, gaztelania hutsean eman zituzten azalpen guztiak. Nire semeak hiru galdera euskaraz egin zituen arren, hiru erantzunak gaztelania hutsean jaso zituen. Saio amaieran semeak antolatzaileei horrelako saiorik euskaraz egiten ote zuten galdetu zien eta ezetz esan zioten, beti dagoela euskaraz ez dakien norbait gaineratuz. Ulergaitza iruditzen zait jarrera hau, Gipuzkoan ekintzaile edota enpresari zein kooperatiba munduko aditu euskaldun mordoa dagoenean.”

Administrazio langileen zuzeneko jarduna edota garatzen duten aktibitatearekin lotutako jarduerak euskaraz burutzeko beharrezko bitarteko eta euskarri asko ere erdaraz jartzen dira beharginen eskura. **4**

Donostiako Protokoloa: 46. neurria

Administrazioak neurriak hartzen ditu lan-jarduna eta langileen arteko komunikazio ofizialak hizkuntza gutxituan egin daitezten.

Adibide hauek erakusten dutenez, langile euskaldunak zailtasunak ditu enpresa barruan, publikoan naiz pribatuan, bere lan jarduna euskaraz garatzeko.

Lan jardunarekin zerikusia duten INSS, Lanbide, SEPE edota Pole Emploi bezalako erakundeekin izapideak egiteko orduan behin eta berriro ikusten du urraturik euskaraz jarduteko eskubidea euskal hiztunak.

Donostiako Protokoloa: 45. neurria

Administrazioak bermatu egiten du hizkuntza gutxitua lantokian erabiltzeko aukera, eta lan-eremuan hizkuntza gutxitua ez debekatzea bultzatzen du.

“Langabeziarako txartela eskatzera gerturatu naiz Lanbidek Santutxun duen bulegora eta ez da egon euskaraz artatu nauenik.”

“Gasteizko SEPEren enplegu bulegoan artatu nauen pertsonak ez zekien euskaraz; galdegin diot ea euskaraz zekien norbaitekin hitz egin nezakeen eta ezetz, ez zegoela. Beste behin ere neure hizkuntza-eskubideak urratuak izan dira estatuko estamentu honetan.”

“Enegarren aldiz joan naiz Getxoko INEMen bulegora eta langileak ez dira euskaldunak. Bulegoko zuzendariarengana jo dut kexa jartzeko asmoz eta bera ere ez da euskalduna. Nazka-nazka eginda nago gaztelaniaz egin behar izateaz.”

“Gizarte Segurantzaren Institutuak Gernikan duen bulegoan inork ez daki euskaraz. Pertsona nagusiek zailtasunak dituzte txanda hartzeko eta euskaraz egiteko horrelako leku baten. Gernikan gaztelera egitera derrigortzen gaituzte, eta ganera “seguridad social”-eko orrian (txanda hartzeko) derrigortzen zaituzte gaztelera egitera eta baita errobotarekin hitz egin behar baduzu zein pertsona batekin, ez daukate harrerarik euskaraz.”

3

ENTREGA DEL MATERIAL DIDÁCTICO

OPCIÓN A EMPRESA BONIFICADA: C.F.I.:

OPCIÓN B ENTIDAD ORGANIZADORA: C.F.I.:

CÓDIGO DE ABRUJACIÓN:

(Se seleccionará uno de los apartados anteriores dependiendo del perfil con el que se haya accedido al Sistema telemático de Gestión de Acciones Formativas en las Empresas)

DESIGNACIÓN DE LA ACCIÓN FORMATIVA: OINARRIZKO SOZIOLOGINGUISTIKA IKASTAROA

Nº: 14 GRUPO: 01 FECHA DE INICIO: 05/09/2014 FECHA FIN: 14/10/2014

FORMADOR/RESPONSABLE DE FORMACIÓN:

Firmado: (Formador / Resp. Formación)

DATOS DE LOS ASISTENTES			FIRMAS	OBSERVACIONES
APELLIDOS	NOMBRE	N.I.F.		
X	X	X		

EMAKUNDE

EMAKUMEN KONTRAKO INDARKEZAREN BIKIMAK ARTAZEN DITUZTEN PROFESIONALENTZAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA

Programa de formación a profesionales que atienden a víctimas de violencia contra las mujeres

OINARRIZKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROA. CURSO BÁSICO DE FORMACIÓN

4

1. PRESENTACIÓN DEL CURSO BÁSICO DE FORMACIÓN ON LINE (85 horas)

Este programa pretende unificar la mirada desde la que atienden las y los profesionales que forman parte del sistema de atención del País Vasco a víctimas de la violencia contra las mujeres. Así mismo, responde a la demanda de formación existente en las instituciones de los distintos ámbitos implicados en dicha atención.

En el marco de este programa JABETUZ, planteamos un curso básico de formación on-line de 85 horas de duración con el que pretendemos fortalecer las líneas de consenso recogidas en el marco del "II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual de la CAE" y, sobre todo, reforzar uno de los principios generales de dicho acuerdo, que es el empoderamiento de las mujeres.

Os proponemos dos módulos de formación, uno introductorio y otro básico, cada uno de ellos con las unidades didácticas correspondientes. En el módulo introductorio se trata de contribuir a la homogeneización de los criterios de intervención profesional de todas las instituciones que realizan atención a víctimas de violencia contra las mujeres.

En cuanto al módulo básico, se trata de ofrecer unos conocimientos mínimos, muy básicos pero imprescindibles para asentar las bases de futuros planteamientos formativos más concretos y específicos.

2. PROGRAMA Y CALENDARIO

El curso consta de dos módulos y 6 unidades didácticas:

SCREENING DE ALTERACIONES DE LA VOZ EN DOCENTES.

IES IBARREKOLANDA BHI

> Nombre y apellidos:.....

> Fecha:.....

1. Descripción de tareas:

- Cursos a los que imparte clase:.....
- Siempre ha dado clase en ese nivel?.....
- Asignatura/s que imparte:.....
- Horas lectivas semanales:.....

Ahozko erabilerarekin batera idatzizko komunikazioan ere urratzen zaio eskubidea euskaldunari. 5

Donostiako Protokoloa: 49. neurria






Lan-eremuan hizkuntza gutxituaren aldeko jarrerak bultzatzen eta saritzen ditu Administrazioak.

“Urte hasieran Donibane Lohizuneko Pôle Emploi erakundeak euskaraz idatzi nuen txeke bat itzuli dit erranez Bordelen ez zutela euskara ulertzen. Alta, txekea bera euskaraz zen, inskripzio guztiak euskaraz idatziak ziren, eta orain arte, beti euskaraz idatzi ditut Pôle Emploiri bidali txekeak eta ez dut inolako arazorik ukan, legez, zenbakiak soilik dutelako prezioa adierazten. Ez dut ulertzen bat-bateko aldaketa hau.”

Gertaera hauek, lan munduan euskara integratzeko eta erabilera areagotzeko beharra uzten dute agerian.



“Lan munduan euskara integratzeko eta erabilera areagotzeko beharra agerikoa da.”



08 Kontsumo zerbitzuak

Interes orokorreko zerbitzuak



Kontsumo zerbitzuak Interes orokorreko zerbitzuak

Kontsumo zerbitzuen alorrean oso zabaldua dagoen esamoldea da "bezeroak arrazoa duela beti". Ez da horrela izaten kontsumitzaile euskaldunentzako; izan ere, euskaraz aritzea ez baita erraz lortzen kontsumo zerbitzu anitzetan. **1**

Donostiako Protokoloa: 110. neurria

Kontsumo-gatazkak ebazteko garaian, hizkuntza gutxituko hiztunen kontsumo-eskubideak bermatzen dira.

Euskaraz jarduteko zailtasunak ahozko zein idatzizko harremanetan gertatu dira.

Merkataritza gun e handiek barra-barra zabaltzen duten publizitate euskarrietan maiz utzi dute bazter euskara.

Donostiako Protokoloa: 107. neurria

Errotulazioa eta merkataritza-informazioa hizkuntza gutxituan eskuragarri daude.




Zenbaitetan euskarari baino lehenago egin zaio lekua atzerriko hizkuntzari. **2**

Denda edo establezimendu barruko kartelak zein errotuluak ere erdara hutsean egotea ohikoa da. **3**

“ALDI supermerkatu kate alemaniarra denda-sarea zabaltzen ari da Euskal Herrian. Orain arte bederatzi supermerkatu zabaldu ditu: 1 Araban (Gasteizen), 3 Bizkaian (Barakaldo, Basauri eta Erandio) eta 5 Nafarroan (Iruñean 2, Huarte, Antsoain eta Tuteran). Laster Bilbo erdialdean beste supermerkatu handi bat zabalduko du. Orain artekoan ALDIk ez ditu kontuan hartu euskal kontsumitzaileak. Dendetako errotulazioa gaztelania hutsean ageri da eta produktuen eskaintza eta iragarkiak ere espainolez soilik idazten ditu. Kontsumitzaile euskalduna naizen aldetik sumindu egiten nau ALDI konpainiaren hizkuntza- politikak, Katalunia eta Balear Uharteetan katalanari tokia egiten dioten bitartean, Euskal Herrian kontsumitzaile euskaldunei bizkar emanda ari delako.”

“Azkoitia bezalako herri euskaldun batean megafonia bidezko iragarkiak lehenengo gazteleraz eta gero euskaraz entzutea ezin dut ulertu. Egia esan ez nago ziur beti hala den ala ez, baina herri honetan behintzat ez legoke inongo arrazoirik lehenengo gazteleraz jartzeko, behin ere ez.”

Produktuen etiketa eta jarraibideak hainbat hizkuntzatan azaltzen dira, baina euskara ez da inon ageri. Ezta Euskal Herrian bertan ekoitziak diren kasuetan ere. **4**



Donostiako Protokoloa: 103. neurria

Produktuen osasun eta segurtasunari buruzko mezuak, hala nola sendagaien jarraibideak, produktuen arriskuei buruzko informazioa, etab., hizkuntza gutxituan ere eskuragarri daude.

Web-orri bidez zabaltzen den informazioan ere ez dira euskal hiztunak kontuan hartzen. **5**

Fakturak, txartelak, gutunak, tiketak, sms-ak eta abar ere maiz erdara hutsean bideratzen zaizkie herritarrei. **6**

Donostiako Protokoloa: 105. neurria

Informazioa hizkuntza gutxituan eskuragarri dago (fakturak, aurrekontuak, tarifak, produktuen katalogoak, ziurtagiriak, produktu eta zerbitzuak erabiltzeko gidak, etab.).

Ustez euskaldunak diren zenbait marketan, Eroski esaterako, atzerapau-soak ere antzeman dituzte herritarrek azken urte honetan, helarazitako kexa andanak erakusten duen moduan. **7**

Ahozko hartu-emanetan edota komunikazioan euskaraz mintzatzeko ezintasuna ez ezik, begirune eta errespetu falta ere nozitu behar izan du herritarrak zenbaitetan: “Mal educada”(edukazio txarrekoa izatea), “No te entiendo. No es obligatorio.”, (ez dizut ulertzen, ez da derrigorrezkoa), “Yo euskera no, no entra en mi contrato”, (nik euskara ez, ez da nire zereginetan sartzen), “Si quieres que te atienda háblame en español” (kasu egitea nahi baduzu, espainolez mintzatu).

“Ekainaren 27an 16:50 aldera Eroskiren Garberako saltokira deitu dut, 943 39 48 75 zenbakira. Bi langilerekin egotea egokitu zait eta bigarrenak “Yo no sé euskera. Te quiero atender pero si no me hablas en castellano no te puedo atender” (Nik ez dakit euskaraz. Atenditu nahi zaitut, baina ez badidazu gaztelaniaz hitz egiten ezin dizut atenditu) esan dit zakar.”

“Gasteizko Boulevard merkataritza guneko arreta gunean ez dute euskaraz arreta egiten.”

“Donostiako Decathlon dendan, ez kutzazaina ezta bezeroen arretarako langilea ere, ez da zerbitzua euskaraz emateko gai izan. Bigarren aldia da kexa jartzen dudana. Bertan ere erreklamazio orria jarri dut.”

“Duela zenbait egun, ezantza postuan langileari euskaraz egin eta frantsesez erantzun dit, dena frantsesez egitera bortxatuz. Gainera, faktura frantsesez da soilik.”

“Gaur DIAREN Ordiziako supermerkatuan izan naiz. Euskaraz egiten saiatu naiz, baina ezin izan dut, inork ez zekien euskaraz.”

Gezurra badirudi ere, zerbitzu egokiagoa eskaintzeko gaitasuna duen langilea zigortu egin da ondoren azaltzen den gertaeran ikus daitekeenez.

“Hendaiako McDonald-ean lan egiten nuen. Mugagabeko kontratu bat proposatu zidaten baina froga epea bukatzeaz zegoela nire behin betiko integrazioa ezeztatu zuten. Lankideekin zein bezeroekin euskaraz hitz egiteagatik arazoak izan ditut behin baino gehiagotan, errespetu ala edukazio falta zela esaten zidaten.”




“Kontsumo zerbitzuen alorrean oso zabalduta dagoen esamoldea da «bezeroak arrazoia duela beti»; ez da horrela izaten kontsumitzaile euskaldunentzako.”

Finantza entitateek, telekomunikazio eta energia hornitzaileek, euskarria edozein dela ere, erabiltzaileei orokorrean zuzendutako informazioa eta baita publizitatea ere erdara hutsean zabaldu ohi dute. **8**

Donostiako Protokoloa: 111. neurria

Honako alor hauetan hizkuntza-plangintzak garatzen dira: aseguru-etxeak, energia-hornitzaileak, garraio-zerbitzuak, finantza-erakundeak, telefono-hornitzaileak, gizarte-prestazioak, osasungintza, posta-zerbitzua...



“Publizitatea ez ezik bestelako idazki pertsonalatuak ere erdaraz jasotzen ditu herritarrak.”

Ausencia Inspección Periódica

En el día de hoy, [] a las [], hemos acudido a su domicilio para realizar la **Inspección Periódica de su instalación de gas**, pero no se encontraba en casa.

Para concertar una nueva visita, le rogamos llame al teléfono abajo indicado, citando como referencia:

Domicilio visitado: _____
 Nº de póliza: _____

Muchas gracias por su colaboración.

Publizitatea ez ezik bestelako idazki pertsonalizatuak ere erdaraz jasotzen ditu herritarrak. 9

Eta herritarrak bere eskubideari atxikita jokatzen duenean batere babesik gabe aurkitzen da askotan entitateen jarrera bidegabearen aurrean.

“Pasa den hilabetean, alokairua txekez ordaindu nuen, beti bezala. Aldi honetan, “La Banque Postale” erakundeak ez du txekea onartu nahi izan; txekea itzuli didate erranez ezin nuela eskualde ala atzerriko hizkuntza batean idatzi txekea, inprimakia frantsesez zelako. Behartu naute frantsesez idaztera.”

Ahozko arreta euskaraz jasotzea nekez lortzen dute herritarrek:

“Arratsaldeko 7:00etan Vodafoneko dendaria euskaraz agurtu eta “en castellano por favor” (gaztelaniaz mesedez) esanaz ukatu dit nire hizkuntzan hitz egiteko aukera.”

“Bilbon bizi naiz eta Jazztelen bezeroaren arreta zerbitzura deitu dut. Euskaraz arreta egingo zidan norbaitekin hitz egiteko eskatu dudanean, hainbat telefono-operadoreekin hitz egin eta gero, euskaldunik ez dutela esan didate.”

“Caja Ruralek Antsoaingo Lapurbide kalean duen bulegora joan naiz. Leihatilan ez zegoen euskaldunik. Gainontzeko langileen artean euskaraz artatuko ninduen inor zegoen galdetuta, ezetz esan dit, bere lankide euskalduna bajan dagoela. Beraz, irten egin naiz.”

“Laboral Kutxaren Berangoko bulegoan izan naiz gaur goizean errenta aitortpena egiteko agiriak aurkezten. Harrera egin didan langilea erdaldun hutsa zen, euskaraz ez dakiela esan dit. Sinatzeko eskaini didan orria ere erdara hutsean zegoen. Uste dut Laboral Kutxak gehiago zaindu beharko lukeela bezero euskaldunoi eskaintzen digun zerbitzua.”

“Euskalteleko bezeroa naiz eta apirilaren 4an 16:30ean deia jaso nuen; eskaintza baten inguruko informazioa emateko zen deia. Langilea gaztelaniaz zuzendu zitzaidan eta nik informazioa euskaraz jaso nahi nuela adierazi nion. Langileak orduan: “en erdera por favor”. Nik ezetz, euskaraz nahi nuela esan eta hark deia moztu egin zidan. Langilearen gaitasun ezaren ondorioz, eskaintzari buruzko informaziorik gabe gelditu naiz. Nire bikotekideari ere gauza bera gertatu zaio.”

“Telefonoz deitu didate etxera hiru aldiz Endesatik eta “Bai?” erantzun arren, hiruretan “buenas tardes, oiga” (Aizu, arratsalde on) esanez jarraitu dute. Neronek “te he respondido ya tres veces” (Hiru aldiz erantzun dizut) esandakoan azaldu dit zer nahi zuen. Zergatik ez didate arreta euskaraz ematen?”



10

Garraioa eta posta bezalako zerbitzuetan erabiltzaileari orokorrean zuzendutako idatzizko mezu edo informazioetan ez da euskararen presentzia bermatzen. **10**

Ahozko zerbitzuan ere, ohikoa da euskaraz egiten duenari erdaraz erantzutea edo erdaraz hitz egiteko eskatzea.


“Ordiziako tren geltokian trenaren ez dabilela jakinarazteko bozgorailuetatik eman duten mezua espainol hutsean eman dute oraingoz, bi aldiz.”

“Autobus ordutegia jakin nahi eta txartela erostekotan nengoen Pesa enpresaren leihatilan. Bertan zegoen langileak espainolez hitz egiteko eskatu dit.”

“Turretako posta-bulegoan emakumezko gazte bik atxanditu naute, euskaraz egin ahal izan diet, baina erdara hutsean aritu zaizkit, “eskerrik asko” sinplea euskaraz esateko ez dira gai izan.”

“Gaur, 18:30ak aldera, Bilboko Epalza Alargunaren 3an dagoen Correoseko bulegora joan eta bertako langileari euskaraz egindakoan, honek euskaraz ez zekiela eta gazteleraz egiteko esan dit. Adeitsu jokatu badu ere, ezin izan dut euskaraz egin.”


Nombre: INFORMACION SOBRE SU ENVÍO
 Norri: correos@correos.com
 Data: 21/06/2016 18:40
 Norri:
 Estimado cliente,
 En breve recibirá en su domicilio el envío etiquetado, recibido por
 EUSKALTELE.
 Para más información, pinche en el nº de envío ([/localizador/track.asp?numero=](#))
 Atentamente,
 Atención al Cliente
 Correos S.A.E.
 Por favor, no responda a este correo electrónico ya que su petición no será atendida. La información incluida en el presente correo electrónico es SECRETO PROFESIONAL Y CONFIDENCIAL, siendo para el uso exclusivo del destinatario arriba mencionado.
 Si usted no es el destinatario del mensaje o ha recibido esta comunicación por error le informamos que esta totalmente prohibida cualquier divulgación, distribución o reproducción de esta comunicación, le rogamos que nos lo notifique inmediatamente y nos devuelva el mensaje original a la dirección arriba mencionada.
 Gracias.
 La información incluida en el presente correo electrónico es SECRETO PROFESIONAL Y CONFIDENCIAL, siendo para el uso exclusivo del destinatario arriba mencionado. Si usted no es el destinatario del mensaje o ha recibido esta comunicación por error le informamos que esta totalmente prohibida cualquier divulgación, distribución o reproducción de esta comunicación, le rogamos que nos lo notifique inmediatamente y nos devuelva el mensaje original a la dirección arriba mencionada.
 Gracias.
 The information contained in this e-mail is LEGALLY PRIVILEGED AND CONFIDENTIAL and is intended only for the use of the addressee named above. If the reader of this message is not the intended recipient or have received this communication in error, please be aware that any dissemination, distribution or duplication of this communication is strictly prohibited, and please notify us immediately and return the original message to us at the address above.
 Thank you



CANTIDAD	CONCEPTO	PRECIO LINEALES	SALIDA EQUIVALENTE	TIPO	CUOTA	PRECIO FINAL
1.14	CART. GORRIKORRA	0.45	0.30	0.00	0.00	0.75
	TOTAL	0.45	0.30	0.00	0.00	0.75



Oharra: Nire helbide elektronikoa "euskotren.eus" domeinu berrira aldatu da. Eguneraz ezazu helbide berria zure kontaktuen zerrendan.
Aviso: Mi dirección de correo ha cambiado al nuevo dominio "euskotren.eus". Actualiza la nueva dirección en tu lista de contactos.
Warning: My email address has changed to the new domain "euskotren.eus". Update the new address in your contact list.



Kontsumo arloan era guztietako zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek ez dituzte askotan hizkuntza-irizpideak aintzakotzat hartzen eta, horrela, ia ezinezkoa da erabiltzaile euskaldunentzako kontsumo harremanak euskaraz izatea. Herritarra frustratuta sentitzen da.



Donostiako Protokoloa: 110. neurria

Kontsumo-gatazkak ebazteko garaian, hizkuntza gutxituko hiztunen kontsumo-eskubideak bermatzen dira.

Bideratu diren kexa guztietan urratu da hizkuntza-eskubidea; baina Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat kasutan, indarrean den 123/2008 Dekretuak ezartzen dituen gutxieneko betebeharrak ere ez dituzte betetzen maiz.

Aipatu Dekretuak obligazioak ezartzen badizkie ere, Dekretua ia erabat indargabetua gelditu zen arau hausteengatik zehapenen atala kentzea onartu baitzen 2012an.

2016ko urtarrilean, bezeroekiko harremanetan hizkuntza-eskubideak bermatzen "ahalegintzeko" lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta zenbait merkataritza entitate handik.

Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko kontsumitzaile euskalduna salduta dago, legeak inongo babesik ez baitio eskaintzen.




Donostiako Protokoloa: 102. neurria

Behar bezala araututa dago hizkuntza gutxituko kontsumitzaileen eskubideen aitortza.

Gaur egun kontsumoak eta zerbitzuen kontratazioak gure bizitzan hartzen duten lekua eta espazioa handia da oso. Harreman horiek euskaraz egiteko zailtasunek nekezagoa egiten dute euskaraz bizitzeko hautua egin duten erabiltzaileen bizitza.



“Kontsumo harremanak euskaraz egiteko zailtasunek nekezagoa egiten dute euskaraz bizitzeko hautua egin duten erabiltzaileen bizitza.”



09 Ondorioak

Ondorioak

Euskal Herriko eremu administratibo guztietako (estatu, autonomia eta toki administrazioetako) zerbitzu publikoetan zein pribatuetan, nahiz kontsumitzaile moduan, idatziz nahiz ahoz, hutsune handiak aurkitu dituzte 2016 urtean euskaraz bizi nahi duten herritarrek.

Euskaraz jardun nahi duen herritarrak sufritu egin behar izan du euskarazko euskarriak eskura ez izatea, agiri ofizialak eta gutunak erdara hutsean jasotzea, langile euskalduna noiz libratuko zain egotea edota erdaraz mintzatu behar izatea, izapideak nola atzeratzen diren ikustea... Finean, erdaldunek dituzten baino aukera urriagoekin konformatu behar izan du.

Errealitate horren ondorio zuzena da euskal herritarren parte garrantzitsu baten bizi-kalitatea, ongizatea eta duintasuna egunero-egunero kalteturik eta desabantailan aurkitzen dela hizkuntza arazoengatik.

Herritarren eta interes orokorraren alde lan egitea da Administrazio eta era guztietako erakunde publikoen zeregin nagusia; jendarte osoarentzako kalitatezko zerbitzua eskaini eta ahalik eta ongizate-maila altuena lortzea, horretarako behar diren erabakiak hartuz.


Eta zerbitzua jendarte osoarentzako izatearen ezinbesteko elementu bat da erabiltzaileak hautatzen duen komunikazio hizkuntza bermatzea, lurraldeko hizkuntzan komunikatzeko eskubidea garantizatzea.

Bai herri zerbitzuen eremuan zein kontsumo arloan, xede horretara iristeko, helburu hori eraginkortasunez betetzeko, beharrezko tresna informatiko eta antzeko baliabideez gain, azpikontratazioetako hizkuntza-irizpideekin, arauekin, zerbitzuen antolamendu egokiarekin eta arduradunen konpromisoarekin batera, funtsezko elementua dira hizkuntza erabiltzeko trebetasuna duten langileak.

Izan ere Administrazioek ezin dute herritar guztien aukera berdintasuna bermatu artatzen duen langileak administratuak hautatutako hizkuntza ez badaki.

Eusko Jaurlaritzak berak iragarri duenez Administrazio Publikoetako milaka langilek erretiroa hartuko du hemendik eta 2020 urtera bitarte. Gehienak Osakidetza, Hezkuntza, Ertzaintza eta Administrazio orokorrekoak. Administrazio Publikoko langileen berritze tasa handia izan da 2016an eta izango da hurrengo urtetan Nafarroako Foru Erkidegoan ere.

Lanpostu asko berritzen ari diren eta berrituko diren une honetan, hizkuntza-eskakizunen sistema berrikusteko asmoa azaldu du Jaurlaritzak.



“Zerbitzua jendarte osoarentzako izatearen ezinbesteko elementu bat da erabiltzaileak hautatzen duen komunikazio hizkuntza bermatzea, lurraldeko hizkuntzan komunikatzeko eskubidea garantizatzea.”

Nafarroako Foru Erkidegoan, berriz, besteak beste, Euskararen I. Plan Estrategikoa 2016-2019 egin da eta Administrazioan Euskararen Erabilera Arautzeko Dekretua berriro da. 2016an egin diren lan-deialdietan ez da aurrerapauso garrantzitsurik eman; are okerrago, kasu askotan, pertsona euskaldunen eskubideak zatikatzen dituen Vasconcearen Lege murriztailea bera urratu da edota ematen dituen aukerak ez dira baliatu.

Ipar Euskal Herrian euskarak ez du inongo aitortza ofizialik eta euskaraz jakitea ez da betekizun kasu batean ere.

Administrazioa euskalduntzeko prozesuan une estrategikoan gaude. Lan-deialdiak administrazioaren berritze prozesu bat dira. Hor sartuko den jendea, segur aski, epe luzerako sartuko da. Epe luzerako apustua da eta badugu kontratazio-politiketan orain arte egindakoak utzi digun esperientzia.

Hemendik aurrera berdin jokatzen bada eta ez bada beste kontratazio-politika bat egiten eta neurri berririk hartzen, hizkuntza-eskubideen bermea hipotekatu eta urraketa egoera betikotzeko arriskua handia da. Euskal hiztunak arintzen ez den estres egoeran jarraituko dute. Eta euskal hiztunak gero eta gehiago dira.

Belaunaldi aldaketa dator eta urte klabeak izan daitezke hurrengoak. Ez dauka zentzurik euskara jakitea eskatu ez eta gerora pertsona horiek euskalduntzen inbertsio handia eskatuko duen dinamikarekin segitzeak. Inflexio puntua behar da. Inbertsioa orduan izango da inbertsio.

Azken hamarkadetan hezkuntzan egindako apustuak eta inbertsioak emaitza batzuk eman ditu, aurrerapen bat egon da, gero eta jende gehiagok daki euskaraz. Etorkizuna euskaraz dator eta Administrazioek errealitate horri erantzuteko betebeharra dute.


Hezkuntzan egindako inbertsioa errentagarri egiteko, orain fokua, ahalegina eta aitzinamendurako indarra beste sail eta arlo batzuetan egin beharra dago.

Jendaurreko arreta postuetan gertatzen denaz gain, langile elebidunak ez kontratatzeak beste egoera bat ere sortzen du: euskaraz lan egin nahi duten langileei oztopoak jartzea eta lana erdaraz egitera behartzea.

Herritarrak euskaraz artatzeko, administrazioaren funtzionamendua euskaldundu eta lan hizkuntza euskara izateko inbertsioak egin eta bitartekoak jarri behar dira. Zenbat eta efektibo euskaldun gehiago eta horien antolaketa egokiagoa, orduan eta hobeki erantzuten zaie herritarren beharrei.

Hizkuntza dela eta herritarrak diskriminatuak izatea nahi ez badugu, pertsona eta aukera guztiak errespetuz eta berdintasunez tratatzea nahi badugu, proaktiboagoa izan behar du Administrazio Publikoen kontratazio-politikak. Euskararen alde egitea pertsonen alde egitea da.

Kontratazio-politika eta hizkuntza-eskakizunak ez dira tratatu eta truke politikorako gaia. Herritarren oinarrizko giza eskubideen bermeaz, herritarren duintasunaz eta elkarbizitzaz ari baikara. Hizkuntza-eskubideez ari garenean oinarrizko giza eskubideez ari baikara.



“Herritarrak euskaraz artatzeko, administrazioaren funtzionamendua euskaldundu eta lan hizkuntza euskara izateko inbertsioak egin eta bitartekoak jarri behar dira. Zenbat eta efektibo euskaldun gehiago eta horien antolaketa egokiagoa, orduan eta hobeki erantzuten zaie herritarren beharrei.”